**Laburpena**

# Giza Garapenari buruzko Txostena **2014**

UNDP

## **Giza aurrerapenak iraunarazi:**

kalteberatasunak murriztu eta erresilientzia eraikitzea



**Euskarazko argitalpena Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari esker egin da**

Argitaratzailea: UNESCO Etxea
Isozaki Atea - Bizikidetasun Plaza
Uribitarte Pasealekua 12, 2. lokala
48001 Bilbo
www.unescoetxea.org

Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura
Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea
unesco etxea
centro unesco euskal herria
centre unesco pays basque
unesco centre basque country

Itzulpena: Olatz Oiartzabal (Bakun S.L.)
Zuzenketak: Maitane Ugarte (Bakun S.L.)
Argitalpenaren koordinazioa: UNESCO Etxea
Inprimaketa: Printhaus S.L.
Lege-gordailua: BI-1364-2014

Klorotik eratorritako produkturik gabe zurituriko %100 paper birziklatuan inprimatua.

Argitalpen honen paperaren kontsumoa, bai eta banaketak sortuko dituen berotegi-efektuko gasak ere, konpentsatu egingo dira CeroCO2 ekimenak bideratzen dituen isurketa-proiektuen bitartez. Horrenbestez, argitalpen hau "karbono neutrala" da eta klima-aldaketaren prebentzioan parte hartzen du.

Copyright © 2014
United Nations Development Programme
1 UN Plaza, New York, NY 10017, USA

Eskubide guztiak erreserbatuta. Argitalpen hau ezin da erreproduzitu, transmititu edo errekuperazio-sistema batean gorde, edozein modutan edo edozein bitarteko elektroniko nahiz mekaniko erabiliz, ez eta fotokopia bidez, grabatuz edo bestelako sistemak erabiliz ere, berariazko baimenik izan gabe.

AEBn inprimatu da, eta PBM Graphics izan da inprimatzailea, RR Donnelley taldeko enpresa bat. Forest Stewardship Council kontseiluak ziurtatu du klororik gabeko orriak direla. Landare-oinarriko tintekin inprimatu da.

Edizioa eta produkzioa: Communications Development Incorporated, Washington DC, AEB
Informazioaren diseinua eta datuen bisualizazioa: Accurat s.r.l., Milan, Italia

Argitaratu ondoren aurkitutako akatsen edo hutsen zerrenda ikusteko, sartu gure webgunean: http://hdr.undp.org

# *Giza Garapenari buruzko Txostena 2014* prestatu duen taldea

## Zuzendaria eta egile nagusia
Khalid Malik

## Zuzendariordea
Eva Jespersen

## Ikerketa eta estatistikak
Maurice Kugler (ikerketa-burua), Milorad Kovacevic (estatistika-burua), Subhra Bhattacharjee, Astra Bonini, Cecilia Calderon, Alan Fuchs, Amie Gaye, Sasa Lucic, Arthur Minsat, Shivani Nayyar, Pedro Martins, Tanni Mukhopadhyay eta José Pineda

## Komunikazioak eta argitalpena
William Orme (komunikazio-burua), Botagoz Abreyeva, Eleonore Fournier-Tombs, Anna Ortubia, Admir Jahic, Brigitte Stark-Merklein, Samantha Wauchope eta Grace Sales

## Giza garapenari buruzko herrialdeko txostenak
Jon Hall (taldeko burua), Christina Hackmann eta Mary Ann Mwangi

## Eragiketak eta administrazioa
Sarantuya Mend (eragiketa-administratzailea), Mamaye Gebretsadik eta Fe Juarez-Shanahan



## Laburpena

# Giza Garapenari buruzko Txostena 2014

## Giza aurrerapenak iraunarazi:

kalteberatasunak murriztu eta erresilientzia eraikitzea

Nazio Batuetako Garapen Programarentzat argitaratua

*Bizitza ahaldunduak.*
*Nazio indartsuak.*

# Hitzaurrea

*Giza Garapenari buruzko Txostena 2014 —Giza aurrerapenak iraunarazi: kalteberatasunak murriztu eta erresilientzia eraikitzea—* izeneko txosten honek elkarrekin lotuta dauden bi kontzeptu lantzen ditu, oso garrantzitsuak biak giza garapenean aurrera egingo dela ziurtatzeko.

Nazio Batuetako Garapen Programak (UNDP) 1990ean lehendabiziko Giza Garapenari buruzko munduko Txostena egin zuenetik, herrialde gehienek nabarmen egin dute aurrera giza garapenean. Aurtengo Txostenak erakusten digu oro har munduko joerak positiboak direla eta aurrerapena etengabea dela. Nolanahi ere, naturak edota gizakiak eragindako hondamendi eta krisien ondorioz, jendea hiltzen ari da, bizibideak galtzen ari dira eta garapena ahultzen ari da.

Dena den, ezbehar horiek ez dira saihetsezinak. Nahiz eta gizarte guztiek bizi dituzten arriskuak, batzuek beste batzuek baino askoz kalte gutxiago izaten dituzte eta azkarrago etortzen dira bere onera, ezbeharrak gertatzen direnean. Txostenak aztertuko du zergatik gertatzen den hori, eta giza garapenari buruzko munduko txosten batean lehen aldiz, giza garapenaren ikuspegitik landuko ditu kalteberatasuna eta erresilientzia.

Kalteberatasunari buruzko ikerketetan, normalean, arrisku jakin batzuek jendeari zenbateraino eragin diezaioketen aztertu izan da, eta askotan sektorekako ikuspegi espezifiko bat erabili da. Txosten honetan, beste ikuspegi bat erabiliko dugu, holistikoagoa. Izan ere, aztertuko dugu zer faktorek eragiten dituzten giza garapena kaltetu dezaketen arriskuak, eta gero azalduko dugu nola eraiki dezakegun erresilientzia handiagoa, sortzen ari diren hainbat arriskuri aurre egiteko.

Oso garrantzitsua da ikuspegi hori hartzea, mundu honetan dena lotuta baitago. Globalizazioak, askori onurak ekarri badizkio ere, kezka berriak ere sortu ditu; izan ere, gure etxetik urrun gertatzen diren ezbeharrek zeharkako ondorioak izaten dituzte batzuetan gugan. Herritarrak etorkizunean horren kalteberak ez izateko, beharrezkoa da komunitateen eta herrialdeen barneko erresilientzia indartzea. Txosten honek horretarako oinarria ezarri nahi du.

Giza garapenaren paradigmaren ildotik, Txostenak pertsonak hartzen ditu ardatz. Bereziki kontuan hartzen ditu herrialdeen arteko eta haien barruko berdintasun-ezak. Alde horretatik, "kalteberatasun estrukturalak" dituzten giza taldeak identifikatzen ditu; hau da, beste batzuk baino kalteberagoak direnak, duten historiagatik edota gizarteko gainerako taldeek desberdin tratatzen dituztelako. Kalteberatasun horiek, askotan, aspaldi sortuak izaten dira eta gaur arte iraun dute; hor sartzen dira, adibidez, generoarekin, etniarekin, indigena izatearekin edota kokapen geografikoarekin lotutakoak, batzuk aipatzearren. Pertsona eta talde kalteberenetako askok hainbat eragozpen izaten dituzte ezbeharrei aurre egiteko gaitasuna handitzeko, eta eragozpen horiek pilatu egin daitezke gainera; adibidez, pobrea izateaz gain talde gutxitu batekoa izatea, edota emakumea izateaz gain desgaitasunen bat izatea. Pertsona horiek hainbat oztopo izaten dituzte, eta oztopo horiek indartu egiten dituzte elkarren ondorio negatiboak.

Txostenak aztertzen du nola aldatzen diren kalteberatasunak gure bizi-zikloan zehar. Eredu estatikoagoek ez bezala, azterketa honek adierazten du haurrek, nerabeek eta adinekoek arrisku desberdinak izaten dituztela, eta, beraz, erantzunek ere talde bakoitzera bideratuta egon behar dutela. Bestalde, ikusi ahal izan da bizitzako une batzuk erabakigarriak direla; zehazki, haur baten bizitzako lehen 1.000 egunak, eskolatik lanera igarotzeko garaia edo lanetik erretiroa hartzeko garaia. Une horietako ezbeharrak bereziki zailak izan daitezke gainditzeko, eta haien eraginek denbora luzez iraun dezakete.

Eskuragarri dauden datuen azterketan oinarrituta, Txostenak zenbait gomendio garrantzitsu ematen ditu, munduan kalteberatasunak murrizteko eta etorkizuneko ezbeharretarako erresilientzia handitzeko. Zehazki, beharrezkotzat jotzen ditu honako hauek: oinarrizko gizarte-zerbitzuak unibertsalak izatea, bereziki osasuna eta hezkuntza; gizartebabesa handitzea, barnean hartuta langabezia-asegurua eta pentsioak; eta enplegu betea lortzeko konpromisoa hartzea, onartuz enpleguaren balioa sortzen dituen diru-sarrerez harago

doala nabarmen. Horrez gain, aztertzen du zeinen garrantzitsua den instituzio arduratsu eta justuak izatea eta gizarte-kohesio indartsu bat izatea, komunitateetan erresilientzia eraikitzeko eta gatazka-aukerak murrizteko.

Txostenak adierazten duenez, politikak berezko kalteberatasunak murrizteko oso eraginkorrak izanda ere, krisiak gertatuko dira gero ere, eta ondorio suntsitzaileak izan ditzakete. Behar-beharrezkoa da hondamendietarako prestatuta egoteko eta haiek gertatu ondoren gure onera itzultzeko gaitasunak eraikitzea, komunitateek ezbeharrei hobeto aurre egiteko eta haietatik lehenbailehen suspertu ahal izateko. Horrez gain, kontuan hartuta ekintza kolektiboen bidez egin behar diegula aurre herrialdeen arteko mugak gainditzen dituzten arriskuei, Txostenak azaltzen du beharrezkoa dela konpromiso globalak hartzea eta nazioarteko gobernantza hobetzea.

Gomendio horiek garrantzitsuak dira, eta gainera, garai ona da gomendioak egiteko. Izan ere, Nazio Batuen Erakundeko estatu kideak 2015en ondorengo garapen-agenda adosteko negoziazioak amaitzen eta garapen iraunkorrerako zenbait helburu jartzen ari dira une honetan, eta, beraz, Txostenean bildutako eta aztertutako datuak eta Txostenaren oinarrian dagoen giza garapenaren ikuspegia oso baliotsuak dira. Pobrezia desagerraraztea, adibidez, agenda berriaren helburu nagusietako bat izango da. Baina, Txostenean adierazten den moduan, jendeak berriro ere pobreziara itzultzeko arriskuan jarraitzen badu faktore estrukturalengatik eta desagertzen ez diren kalteberatasunengatik, garapenaren aurrerapenek ezegonkorrak izango dira. Pobrezia desagerraraztearen helburua ez da "zero pobrezia" lortzea soilik, gero maila horri eustea ere bada.

UNDPren asmoa lortzeko —hau da, herrialdeei pobrezia desagerrarazten lagundu eta aldi berean berdintasun-ezak eta bazterketa nabarmen murriztu eta giza garapen iraunkorra sustatzeko—, oso ongi ulertu behar dira *kalteberatasun* eta *erresilientzia* kontzeptuak. Kalteberatasunei modu eraginkorrean heltzen ez bazaie eta ez bazaigu pertsona guztioi ematen giza garapenaren aurrerapenen onurak jasotzeko aukera, aurrerapen horiek ez dira inoiz ez bidezkoak ez iraunkorrak izango.

Txostenaren helburua da erabaki-hartzaileei eta beste garapen-eragile batzuei garapenaren irabaziak iraunarazten laguntzea, kalteberatasuna murrizten duten eta erresilientzia sortzen duten politikak egin daitezen sustatuz. Giza garapenaren aurrerapenak iraunkorrak izatea nahi baduzu, batez ere munduko pertsona kalteberenen artean, Txosten hau irakurtzea gomendatzen dizut.



Helen Clark
*Administraria*
Nazio Batuetako Garapen Programa

# Giza Garapenari buruzko Txostena 2014ren edukiak

Hitzaurrea
Eskerrak

Ikuspegi orokorra

## 1. KAPITULUA

### Kalteberatasuna eta giza garapena

Giza garapenaren ikuspegia
Jende kaltebera, mundu kaltebera
Aukerak eta gaitasunak
Politikak eta ekintza kolektiboak

## 2. KAPITULUA

### Giza garapenaren egoera

Pertsonak aurrerabidean
Giza garapenaren mehatxu globalak

## 3. KAPITULUA

### Jende kaltebera, mundu kaltebera

Bizi-gaitasunak eta bizi-zikloko kalteberatasunak: elkarren mendekoak eta metakorrak
Kalteberatasun estrukturalak
Talde-indarkeria eta segurtasunik eza

## 4. KAPITULUA

### Erresilientzia eraikitzen: askatasunak zabaldu, aukerak babestu

Oinarrizko gizarte-zerbitzu unibertsalak
Bizi-zikloko kalteberatasunak— garai erabakigarriak
Enplegu betea sustatzea
Gizarte-babesa indartzea
Gizarte-inklusioa
Krisietarako prestatzeko eta haietatik suspertzeko gaitasunak handitzea

## 5. KAPITULUA

### Aurrerapenean sakontzen: ondasun globalak eta ekintza kolektiboak

Nazioz gaindiko kalteberatasunak eta mehatxu komunak
Pertsonak jartzea lehendabizi, mundu globalizatu batean
Mundu seguruago bat lortzeko ekintza kolektiboak

Oharrak
Bibliografia

## ESTATISTIKA-ERANSKINAK

Irakurlearen gida
Herrialdeen eta GGIren araberako sailkapenen gida, 2013
Estatistika-taulak
1. Giza Garapenaren Indizea eta zer osagai dituen
2. Giza Garapenaren Indizearen joerak, 1980–2013
3. Berdintasun-ezaren arabera Doitutako Giza Garapenaren Indizea
4. Generoaren alorreko Berdintasun-ezaren Indizea
5. Genero Garapenaren Indizea
6. Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea
6A. Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea: denboran zehar izandako aldaketak (herrialde batzuk)
7. Osasuna: haurrak eta gazteak
8. Helduen osasuna eta osasun-gastuak
9. Hezkuntza
10. Baliabideen gaineko agintea eta baliabideen banaketa
11. Gizarte-gaitasunak
12. Segurtasun-gabezia pertsonala
13. Nazioartean integratzea
14. Ingurumena
15. Biztanleria-joerak
16. Indize osagarriak: ongizatearen pertzepzioak
Eskualdeak
Estatistika-erreferentziak



# Laburpena

Giza garapenari buruzko txostenek behin eta berriz erakutsi duten bezala, herrialde gehienetan, jende gehienak hobera egin du etengabe giza garapenean. Teknologian, hezkuntzan eta diru-sarreretan egindako aurrerapenei esker, inoiz baino bizitza luze, osasuntsu eta seguruagoak bizitzeko aukera dugu. Baina munduan bada halako ezegonkortasun-sentsazio bat ere, bizibideen, segurtasun pertsonalaren, ingurumenaren eta politika globalen inguruan. Izan ere, lorpen handiak egin dira giza garapenaren zenbait alderdi garrantzitsutan, hala nola osasunean eta elikaduran, baina hondamendi natural batek edo atzeraldi ekonomiko batek berehala zapuztu ditzake lorpen horiek. Lapurretek eta erasoek jendea fisikoki eta psikologikoki pobretuta utz dezakete. Ustelkeriak eta instituzio publiko axolagabeek baliabiderik gabe utz ditzakete laguntza-beharrean daudenak.

Beraz, giza garapenean benetako aurrerapenak egiteko, ez da nahikoa pertsonek hezkuntza jasotzeko, osasuntsu egoteko, zentzuzko bizimaila bat izateko eta seguru sentitzeko dituzten funtsezko aukerak eta gaitasunak handitzea; beharrezkoa da giza garapen hori iraunkorra izatea ere. Horregatik, giza garapenaren aurrerapenak neurtzean, ezinbestekoa da kalteberatasuna aztertu eta ebaluatzea.

Normalean, kalteberatasunaren bidez adierazten da zenbateraino dagoen norbait arrisku baten eraginpean eta nola kudeatzen duen arrisku hori, barnean hartuta ezbeharretarako asegururik baduen ala ez, eta ondasunak eta diru-sarrerak dibertsifikatuta dituen ala ez. Txostenak hori baino ikuspegi zabalagoa erabiltzen du, eta azpimarratzen du garapenean aurrera egitea hertsiki lotuta dagoela kalteberatasuna murriztearekin. Guk *giza kalteberatasun* kontzeptua sortu dugu, pertsonen gaitasunak eta aukerak murrizteko probabilitatea deskribatzeko. *Kalteberatasun* kontzeptua ez da horren abstraktua, zehazten badugu nor den kaltebera, zerekiko eta zergatik (1. irudia).

Kalteberatasun-iturri sistemiko eta iraunkorrak azpimarratzen ditugu, eta galdetzen dugu zergatik lortzen duten pertsona batzuek beste batzuek baino hobeto ezbeharrei aurre egitea. Pertsonek segurtasun-gabeziaren maila desberdinak eta kalteberatasun-mota desberdinak bizitzen dituzte bizi-zikloaren zenbait unetan. Haurrak, nerabeak eta adinekoak kalteberak dira berez. Horregatik, aztertuko dugu zer inbertsio eta esku-hartze motak murriztu dezaketen kalteberatasuna, bizi-zikloko garai erabakigarrietan.

1. IRUDIA

**Nor da kaltebera, zerekiko eta zergatik?**




**Iturria:** Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoa.

Kalteberatasunak arriskuan jartzen du giza garapena, eta ez bazaio sistematikoki heltzen gaiari, politikak eta gizarte-arauak aldatuz, aurrerapena ez da ez bidezkoa ez iraunkorra izango

Txostenak azaltzen du beharrezkoa dela pertsonen eta gizarteen gaitasunetan hobekuntza iraunkorrak egitea, aspalditik datozen kalteberatasun horiek murrizteko —asko estrukturalak dira, eta beste asko, bizi-zikloaren baitakoak—. Aurrerabideak erresilientzia handiko giza garapena sustatu behar du. Eztabaida handia dago erresilientziaren esanahiari buruz, baina guk *giza erresilientzia* dugu ardatz nagusi; hau da, ziurtatzea pertsonek aukera sendoak dituztela, orain eta etorkizunean, eta ezbeharrei aurre egiteko edo haietara moldatzeko gaitasuna dutela.

Instituzioek, egiturek eta arauek giza erresilientzia areagotu edo murriztu dezakete. Estatuko politikek eta komunitateko laguntza-sareek, adibidez, ezbeharrak gainditzeko gaitasuna eman diezaiekete pertsonei; berdintasun-ez horizontalak, berriz, murriztu egin dezake talde batzuek ezbeharrei aurre egiteko duten gaitasuna.

Txostenak aztertzen du zer politika eta erreforma instituzional izan daitezkeen lagungarriak gizartean erresilientzia handitzeko; batez ere, talde baztertuen eta bizi-zikloko garai erabakigarrietan daudenen artean. Gainera, diskriminazioa desagerraraz dezaketen neurri unibertsalak aztertzen ditu, eta azpimarratzen du ekintza kolektiboak behar direla instituzio nazional axolagabeen eta gobernantza globalaren gabezien ondoriozko kalteberatasuna konpontzeko.

## Giza aurrerapena

*Giza Garapenari buruzko Txostena 2013*k azaldu zuenez, garapen-bidean dauden 40 herrialdek baino gehiagok —munduko biztanleriaren gehiengoa biltzen dute— Giza Garapenaren Indizean izan duten gorakada 1990. urtean aurreikus zitekeen baino handiagoa izan da. Dena den, lorpen horiek ez dira aldaezinak. Datu batzuen arabera, aurrerapena moteltzen ari da talde guztietan (2. irudia). Ezinbestekoa da kalteberatasunari heltzea, lortutako onurei eutsiko diegula eta aurrerapen etengabeak etenaldirik izango ez duela bermatzeko. 2015en ondorengo agenda prestatzen eta garapen iraunkorrerako zenbait helburu jartzen ari diren honetan, garai ona da nazioarteak hausnarketa bat egiteko eta lankidetza globalerako modu berriak sortzeko, aspalditik datozen kalteberatasun sistemikoak murriztu daitezen.

Bestalde, oinarrizko galdera bat egin behar dugu: noren oparotasuna ari gara ikusten? Batez bestekoetatik eta diru-sarrera mailetatik harago begiratu behar dugu, ikusteko nola banatzen diren ongizatean lortutako hobekuntzak pertsonen, komunitateen eta herrialdeen artean. Giza garapenean berdintasun-ezagatik izandako batez besteko galerek behera egin dute azken urteotan eskualde gehienetan, mundu osoan osasunean egin diren hobekuntzengatik nagusiki. Baina diru-sarreren alorreko berdintasun-ezak areagotu egin dira eskualde askotan, eta hezkuntzaren alorrekoek egonkor jarraitu dute, oro har. Berdintasun-ezak murriztea ospatzeko modukoa da, baina diru-sarreren alorreko berdintasun-ezen igoera osasunean egindako aurrerapenekin konpentsatzea ez da nahikoa. Kalteberatasunari aurre egin nahi badiogu, bereziki talde baztertuen artean, eta azken urteotako lorpenei eutsi, funtsezkoa da berdintasun-eza murriztea giza garapenaren maila guztietan.

## Jende kaltebera, mundu kaltebera

Muturreko pobrezian bizi diren pertsonak dira kalteberenetako batzuk. Nahiz eta azkenaldian aurrerapenak egin diren pobrezia murrizten, 2,2 mila milioi pertsona pobrezia multidimentsionaletik gertu edo pobrezia horretan bizi dira (3. irudia). Horrek esan nahi du munduko biztanleriaren %15ek baino gehiagok pobrezia multidimentsionalaren eraginpean jarraitzen duela. Era berean, munduko biztanleriaren %80 inguruk ez du gizarte-babes osoa. %12 inguruk (842 milioi) gose kronikoa du, eta ia langileria guztiaren erdiak —1,5 mila milioi pertsona baino gehiago— ezkutuko ekonomian dihardu edo lan ezegonkorra du.

Hezkuntzan eta osasunean gaitasunak mugatuta dituztenek, adibidez, aukera gutxiago dituzte balioesten dituzten bizitzak bizitzeko. Gainera, gizarteko oztopoek edo beste jarduera esklusibista batzuek murriztu edo eragotzi egiten dizkiete askotan aukerak. Gaitasun mugatuei aukeraketa mugatuak gehituz gero, pertsona horiek ez dute mehatxuei aurre egiteko aukerarik. Gainera, bizi-zikloko une jakin batzuetan, gaitasunek behera egin dezakete, behar zen garaian ez zelako ez inbertsiorik egin ez arretarik eman, eta horrek kalteberatasunak pilatzea eragin dezake. Jaiotzak, adinak, identitateak eta maila sozioekonomikoak baldintzatzen dute, besteak beste, ezbeharrei aurre egiteko gaitasuna —eta pertsonek kontrol gutxi dute edo ez dute kontrolik faktore horien gainean—.

2. IRUDIA

**Giza garapeneko lau taldeek motelaldia izan dute Giza Garapenaren Indizearen gorakadan**




**Oharra:** Garatuta eta garapen-bidean dauden 141 herrialderen datuak erabili dira, biztanleriaren pisua kontuan hartuta.
**Iturria:** Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoak kalkulatua.

## Bizi-zikloko kalteberatasunak

Gaitasunak bizitza osoan eraikitzen dira, eta elikatu egin behar dira, bestela egonkortu egiten baitira. Pertsona askoren kasuan, kalteberatasunak (eta indarguneak) beren bizitzako historiaren emaitza dira, iraganeko emaitzek egun eraginpean zenbateraino dauden eta ezbeharrei nola aurre egiten dieten baldintzatzen dute eta. Bizi-gaitasunen eraketak bi ezaugarri ditu. Batetik, bizitzako garai bakoitzeko gaitasunak aurreko garaietan egindako inbertsioen baitan daude. Ingurune hurbilaren, komunitatearen eta gizartearen arteko interakzioaren baitan ere badaude. Bestetik, epe laburrerako ezbeharrek epe luzerako ondorioak izaten dituzte askotan. Baliteke pertsonak ez etortzea berehala bere onera, ezbehar iragankor bat dirudien horretatik. Ondorio batzuei buelta eman dakieke, baina ez denei; buelta-emate hori testuinguruaren baitan dago eta ez da beti errentagarria.

Zenbat eta lehenago egin inbertsioak bizigaitasunetan, orduan eta hobeagoak dira etorkizuneko itxaropenak (4. irudiko lerro urdin jarraitua). Kontrakoa ere egia da; hau da, inbertsioak garaiz eta etengabe ez egiteak arriskuan jar ditzake pertsona batek giza garapen osoa lortzeko dituen gaitasunak (4. irudiko lerro gorri jarraitua). Gerora egiten diren esku-hartzeek suspertzen laguntzen diete pertsonei —normalean, zati batean bakarrik—, bai eta giza garapenaren maila altuago batera igotzen ere (4. irudiko lerro urdin etena).

Askotan, pobreziak eten egiten du lehen haurtzaroko garapen normala —garapen-bidean dauden herrialdeetako haurren artetik, bostetik bat baino gehiago diru-sarreren erabateko pobrezian bizi da eta malnutrizioa izan dezake—. Garapen-bidean dauden herrialdeetan (haurren %92 hor bizi da), 100etik 7k ez dute 5 urte baino gehiago iraungo bizirik, 50i ez zaie jaiotza erregistratuko, 68k ez dute lehen haurtzaroan hezkuntzarik jasoko,

Bizi-zikloko kalteberatasunak, kalteberatasun estrukturalak eta segurtasunik gabeko bizitzak dira gabeziek irautearen arrazoi nagusiak, eta beharrezkoa da haiei aurre egitea, giza garapenari eusteko eta garapena iraunkorra izateko

3. IRUDIA

**1,2 mila milioi bat pertsona bizi dira eguneko 1,25 $ baino gutxiagoz; 1,5 mila milioi, pobrezia multidimentsionalean**




Iturria: Pobrezia multidimentsionala Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoak kalkulatu du, familiei egindako zenbait inkestatan oinarrituta: ICF Macroren demografia eta osasun-inkestetan, UNICEFen hainbat adierazle taldekatuko inkestetan, eta familiei egindako zenbait inkesta nazionaletan. Diru-sarreren pobrezia ere Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoak kalkulatu du, Munduko Bankuaren munduko garapenaren adierazleen datu-baseko datuetan oinarrituta.

17 ez dira sekula matrikulatuko Lehen Hezkuntzan, 30ek garapen fisiko eskasa izango dute, eta 25 pobrezian biziko dira. Elikagai, saneamendu eta higiene desegokiak areagotu egiten dituzte infekzioak eta garapen fisiko eskasa: 156 milioi haur inguruk garapen fisiko eskasa dute, malnutrizioaren eta infekzioen ondorioz. Malnutrizioak zerikusia du elgorriak, malariak, pneumoniak eta beherakoak eragindako heriotzen %35ekin. Lehen haurtzaroko gabeziak dira kaltegarrienak.

Ez dutenez osasuntsu hazteko oinarrizko elikadurarik, osasun-laguntzarik eta estimulaziorik, haur pobre asko ez daude ikasteko moduan eskolara joaten direnean, eta emaitza eskasak ateratzen dituzte, errepikatu egiten dute edota ikasketak uzten dituzte. 6 urterekin edo eskolan hasteko adinean ere, haur pobreak desabantaila-egoeran daude dagoeneko (5. irudia). Goiz agertzen dira aldeak abilezietan. Adibidez, bizitzaren hasieran hasten gara hitzak ikasten. Estatu Batuetan, 36 hilabeteko haurren hizkuntza-gaitasunetan alde nabarmenak egoten dira testuinguru sozioekonomikoen arabera, eta 9 urterekin ere ikus daitezke oraindik. Beraz, beharrezkoa da garaiz esku hartzea; esaterako, lehen haurtzaroko hezkuntzan inbertitzea.

Gaztaroa —15-24 urte— funtsezko trantsizio-garai bat da, haurrek gizartean eta lan-munduan moldatzen ikasi behar dutelako. Herrialde askotan, gazteen kopurua gorantz doa. Mundu osoko gazteak bereziki kalteberak dira, lan-merkatuan marjinatuak izateko arriskua baitute, ez dutelako lan-esperientziarik, gizarte-sarerik, lana bilatzeko abileziarik edo lana bilatzeko baliabide ekonomikorik. Beraz, aukera gehiago dituzte langabezian geratzeko, azpikontratatuak izateko edo kontratu ezegonkorrekin lan egiteko. Kalkuluen arabera, 2012an, gazteen langabezia-tasa %12,7 zen, helduen tasa halako hiru ia-ia.

Beharrezkoa da anbizio handiko politikak egitea, gazteek lan-merkatuarekiko dituzten itxaropenak betetzeko. Anbizio handiko politika

4. IRUDIA

**Zenbat eta lehenago inbertitu bizi-gaitasunetan, orduan eta hobeak dira etorkizunerako itxaropenak**




**Iturria:** Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoak kalkulatua.

horiekin, gazteen langabezia-tasa globala %5 baino baxuagoa izango litzateke 2050erako, politikek bi ondorio izango lituzketelako: gazte gutxiago sartzea lan-merkatuan eta hazkunde ekonomikoa handitzea. Nolanahi ere, desberdintasun handiak daude eskualdeen artean. Orain arte bezala jarraituko bagenu, langileen eskaintzaren eta eskariaren arteko aldea gero eta handiagoa izango litzateke, batez ere Saharaz hegoaldeko Afrikan. Baina anbizio handiko politikekin (hezkuntza-politika goiztiarrak eta hazkunde ekonomiko bizkortua), amaitu egingo litzateke alde hori Hego Asian, eta murriztu, Saharaz hegoaldeko Afrikan (6. irudia). Hego Asian, aldea amaitu egingo litzateke 2050erako, batetik, hezkuntza-politika goiztiarrek biztanleria-dinamikak aldatuko lituzketelako, eta, bestetik, hazkunde ekonomikoa handiagoa izango litzatekeelako. Saharaz hegoaldeko Afrikan, enplegu-tasa handitzeko politika gehigarri batzuk beharko lirateke, aldea amaitzeko.

Pobrezia eta gizarte-bazterketa arazo izaten dira zahartzen ari direnentzat ere; izan ere, munduko zaharren %80 inguruk ez du pentsiorik eta lanari eta familiari esker lortzen ditu diru-sarrerak. Eta pertsonak, zahartu ahala, gero eta kalteberagoak bihurtzen dira fisikoki, mentalki eta ekonomikoki. Zahartzaroko pobrezia kronikoa izaten da gehienetan, bizitzan aurrez aukera ekonomiko eta segurtasun gutxi izanak kalteberatasun handiagoa dakarrelako zahartzaroan. Bestalde, gaztaroan izandako desabantailak pilatzeak pobrezia belaunaldi batetik bestera igarotzea ere eragiten du.

## Kalteberatasun estrukturalak

Gizarte- eta lege-instituzioek, botere-egiturek, politikarako guneek, tradizioek edo arau soziokulturalek ez badizkiete aukera berdinak ematen gizarteko kideei —eta beren eskubideak eta aukerak erabiltzeko oztopoak jartzen badizkiete pertsona eta talde batzuei— kalteberatasun

## 5. IRUDIA

**Haur pobreak desabantailan egoten dira dagoeneko 6 urterekin hizkuntza-gaitasunetan, Ekuadorren kasuan ikus daitekeen moduan**




**Iturria:** Paxson eta Schady 2007.

## 6. IRUDIA

**Hezkuntza-politika goiztiarrek eta hazkunde ekonomiko bizkortuak desagerrarazi egingo lukete langile gazteen eskaintzaren eta eskariaren arteko aldea Hego Asian, eta murriztu, Saharaz hegoaldeko Afrikan, 2010etik 2050era bitartean**




**Iturria:** Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoak kalkulatua, oinarritzat hartuta Lutz eta KC (2013) eta Pardee Center for International Futures (2013).

estrukturalak sortzen dituzte. Kalteberatasun estrukturalek, askotan, berdintasun-ezak eta pobrezia orokorra eragiten dituzte; berdintasun-ez horiek taldeen artekoak edo horizontalak izaten dira; hau da, gizarteko talde jakin bateko kide izateagatik sortuak. Pobreek, emakumeek, gutxiengoek (etnikoak, linguistikoak, erlijiosoak, migratzaileenak edo sexualak), indigenek, landa-inguruneetan edo leku bakartuetan bizi direnek eta desgaituek, bai eta barrualdeko herrialdeek edo natura-baliabide gutxi dituztenek ere, besteek baino oztopo gehiago izaten dituzte normalean —batzuetan oztopo legalak ere bai—, gaitasunak eraikitzeko, beren aukeraketak egiteko, eta ezbeharrak gertatzean laguntza eta babesa jasotzeko eskubideak aldarrikatzeko.

Kalteberatasun estrukturalak bizi dituztenen segurtasun-gabezia aspalditik dator, eta gainditzeko zailak diren zatiketak sortu ditu generoan, etnian, arrazan, lan-motan eta estatus sozialean. Kalteberatasun estrukturalak bizi dituztenak besteak bezain gai izan daitezke, baina ezbeharrei aurre egiteko oztopo gehigarriak izan ditzakete; adibidez, desgaituek askotan zailtasunak izaten dituzte garraiobide publikoetara, gobernu-bulegoetara eta beste leku publiko batzuetara sartzeko, hala nola ospitaleetara, eta horrek zaildu egiten die bizitza ekonomiko, sozial eta politikoan parte hartzea, edo laguntza bilatzea, haien ongizate fisikoa arriskuan dagoenean.

Askori pilatu egiten zaizkie arazoei aurre egiteko oztopo estrukturalak —adibidez, gutxiengo bateko kide diren pobreei edota emakume desgaituei—. Munduko pobreen hiru laurden landa-inguruneetan bizi dira, eta nekazariek izan ohi dituzte pobrezia-tasarik handienak. Produktibitate baxuko, urte-sasoiko langabeziako eta soldata baxuko ziklo amaigabeetan harrapatuta daude, eta eguraldi-joeren aldaketak bereziki eragiten die. Eskubide zibilik ez duten gutxiengo etniko eta erlijiosoak diskriminazioa jasateko arriskua dute, justizia-sistema formalak erabiltzeko aukera gutxi dute, eta iraganeko errepresioen eta aurreiritzien ondorioak jasaten dituzte. Indigenak munduko biztanleriaren %5 inguru dira, baina munduko pobreen %15 inguru osatzen dute, eta herena muturreko pobrezian bizi da landa-inguruneetan. Munduan, 60 urteko edo gehiagoko biztanleen %46k baino gehiagok desgaitasunak ditu, eta zailtasun handiak ditu gizartean parte-hartze osoa izateko —gizarteko diskriminazio-jarrerek are gehiago zailtzen dute egoera—.

### Talde-indarkeria eta segurtasunik eza

Gatazkek eta segurtasunik ezak eragin negatiboak dituzte giza garapenean, eta milaka milioi pertsona bizi-baldintza eskasetan uzten dituzte. Giza Garapenaren Indizearen behealdeko herrialde asko gatazka-garai luzeetatik irteten ari dira edo indarkeria armatuan murgilduta daude oraindik ere. 1,5 mila milioi pertsona baino gehiago gatazkan dauden herrialdeetan bizi dira —munduko biztanleriaren bostena, gutxi gorabehera—. Eta azkenaldiko ezegonkortasun politikoak izugarrizko giza kostua izan du. 45 milioi pertsona inguruk beren bizilekua utzi behar izan dute, gatazken edo jazarpenen ondorioz, 2012aren amaierarako —azken 18 urteetako kopururik handiena—; horietatik 15 milioi baino gehiago errefuxiatuak dira. Mendebaldeko eta Erdialdeko Afrikako zenbait tokitan, lege faltak eta gatazka armatuek giza garapenaren aurrerapenak arriskuan jartzen dituzte oraindik, eta horrek epe luzerako ondorioak ditu. Latinoamerikako eta Karibeko zenbait herrialdetan, giza garapenean lorpen handiak egin badira ere, jende asko mehatxatuta sentitzen da, hilketak eta indarkeriazko beste krimen batzuk gora eta gora ari direlako.

## Erresilientzia eraikitzen

Pertsonen ongizatean, eragin handia du bai pertsonak bizitzan zenbateko askatasuna duen, bai zer-nolako gaitasuna duen ezbeharrei aurre egiteko. Erresilientziak giza garapena ziurtatzearen aldeko ikuspegi osoa sustatzen du. Erresilientziaren ardatza da estatuko, komunitateko eta munduko instituzioek jendea ahalduntzeko eta babesteko lan egiten dutela ziurtatzea. Izan ere, beharrezkoa da pertsonei askatasunez jardutea eragozten dieten oztopoak kentzea. Helburua da behartsuei eta baztertuei beren eskubideak erabiltzeko, beren kezkak modu irekian adierazteko, entzunak izateko eta beren etorkizuna eraikitzen duten eragile aktiboak izateko gaitasuna ematea. Norberak balioesten duen bizitza bizitzea eta norberaren gauzak modu egokian kudeatzea da kontua. Txostenak erresilientzia eraikitzeko behar diren politika, printzipio eta neurri nagusi batzuk azpimarratzen ditu —zehazki, aukeraketak babestea, giza agentzia handitzea eta gizarte-gaitasunak sustatzea —(1. laukia). Horrez gain, adierazten du ezbeharretarako prestatuta egotea eta ezbeharrei erantzun eraginkorrak ematea dela giza aurrerapenak iraunaraztearen gakoa.

Kalteberatasunari aurre egiteko politikek mehatxuak prebenitu, gaitasunak sustatu, eta pertsonak babestu beharko lituzkete; bereziki, kalteberenak

1. LAUKIA

**Printzipioak eta politikak**

Giza garapenaren eta bizi-aukera berdinak sustatzearen alorreko ideia nagusiak erabilita, lau printzipio gidari emango ditugu, kalteberatasuna murrizten duten eta erresilientzia handitzen duten politikak diseinatzeko eta abiarazteko.

### Unibertsaltasuna

Pertsona guztiek dute babesa eta laguntza jasotzeko eskubidea. Beraz, onartu behar dugu arriskuekiko eta mehatxuekiko kalteberenak direnek, haurrek eta desgaituek, laguntza gehigarria behar izan dezaketela, beren bizi-aukerak besteenen berdinak direla bermatzeko. Hortaz, litekeena da eskubide eta arreta desberdinak behar izatea, unibertsaltasuna bermatzeko. Guztiok berdinak izateko, trataera desberdinak jaso behar ditugu, ahulenen mesedetan.[1]

### Pertsonak lehenengo

Kalteberatasunak murrizteko, beharrezkoa da giza garapenaren funtsezko mezua berritzea: "pertsonak lehenengo" da mezua —behin eta berriz zabaldu dugu mezu hori giza garapenari buruzko txosten guztietan, 1990ean lehenengoa argitaratu genuenetik—. Politika publiko guztiak, batez ere makroekonomikoak, helburu bat lortzeko bideak dira, eta ez helburuak. Politika-egileek oinarrizko galdera batzuk egin behar dituzte: hazkunde ekonomikoa jendearen bizitzak hobetzen ari al da benetan garrantzitsuak diren alorretan, hala nola osasunean, hezkuntzan, diru-sarreretan, segurtasunean eta askatasun pertsonaletan? Kalteberago sentitzen al da jendea? Pertsona batzuk atzean uzten ari al gara? Eta, hala bada, nor dira eta zein da kalteberatasun eta bidegabekeria horiei aurre egiteko modurik onena?

### Ekintza kolektiboetan parte hartzeko konpromisoa

Gaur egungo erronkei aurre egiteko, ekintza kolektiboak behar dira. Pertsonek taldean jarduten dutenean, mehatxuak gainditzeko gaitasun eta aukera indibidualak elkartzen dituzte, eta erresilientzia bateratuak areagotu egiten du garapena, eta iraunkorrago egiten du. Gauza bera gertatzen da estatuek elkarrekin lan egiten dutenean mugaz gaindiko mehatxuei aurre egiteko, ondasun publiko globalak hornituz. Zalantza ugari dauden arren, gauza bat argi dago: jabari publikoaren ikuspegi positibo bat ondasun publiko nazional nahiz globalak arrakastaz hornitzearen baitan egongo da, neurri handi batean.

### Estatuen eta gizarte-instituzioen arteko koordinazioa

Pertsonok ezin dugu bakarrik funtzionatu. Jaiotzen garenean, familiak ematen digu bizitzeko behar dugun sostengua. Era berean, familiek ezin dute bakarrik jardun gizartean. Beharrezkoa da gizarte-arauak, gizarte-kohesioa eta gizarte-gaitasunak hobetzeko politikak izatea, gobernuek eta gizarte-instituzioek elkarrekin lan egin ahal izateko kalteberatasunak murrizten. Eta merkatuek eta sistemek berek sortzen badituzte kalteberatasunak, gobernuek eta gizarte-instituzioek kalteberatasunak mugatzera bideratu behar dituzte merkatuak, eta jendeari lagundu behar diote, merkatuek hala egiten ez dutenean.

Oharra
1. Sen 1992.

## Oinarrizko gizarte-zerbitzu unibertsalak

Unibertsaltasunak esan nahi du funtsezko gaitasunak eraikitzeko aukera berdinak ditugula guztiok. Oinarrizko gizarte-gaitasunak —hezkuntza, osasun-laguntza, ur-hornidura eta saneamendua, eta segurtasun publikoa—, unibertsalak izatearen beharra premisa hauetan oinarrituta dago: pertsona guztiek eduki beharko luketela balioesten dituzten bizitzak bizitzeko ahalmena, eta bizitza duinaren oinarrizko elementu batzuk eskuratzeak ez lukeela jendearen erosahalmenarekin lotuta egon behar. Oinarrizko gizarte-zerbitzuen estaldura unibertsala posible da garapenaren hasierako faseetan (7. irudia). Eta azkenaldiko esperientziek, hala nola Txina, Ruanda eta Vietnamekoek, erakutsi dute nahiko azkar lor daitekeela (hamarkada batean baino gutxiagoan).

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen hornikuntza unibertsalak kalteberatasun estrukturalak murriztu ditzake. Aukerak eta emaitzak berdintzeko tresna garrantzitsu bat izan daiteke. Adibidez, kalitate handiko hezkuntza publiko unibertsalak familia aberatsetako eta pobreetako haurren arteko hezkuntza-aldeak arindu ditzake. Gaitasunak belaunaldiz belaunaldi igarotzen direnez familietan, onurek luze iraun dezakete. Horrez gain, unibertsaltasun-politikek elkartasun soziala sustatzen dute, eta desagertu egiten dira talde batzuk jomugatzat hartzearen desabantailak; zehazki, estigma sozialak, zerbitzuen kalitatearen segmentazioa eta zerbitzuak kalteberenengana ez iristea.

Guztiok eduki beharko genuke hezkuntza, osasun-laguntza eta oinarrizko beste zerbitzu batzuk jasotzeko eskubidea. Unibertsaltasun-printzipio hori betetzeko, hainbat arreta eta baliabide beharko dira, bereziki pobreentzat eta beste talde kaltebera batzuentzat

Ideia okerretako bat da herrialde aberatsek soilik izan ditzaketela gizarte-babesa edo oinarrizko zerbitzu unibertsalak. Txostenak jasotzen du datuek kontrakoa erakusten dutela; izan ere, indarkeriazko gatazkak eta aztoramena bizi dituzten gizarteek izan ezik, gizarte gehienek oinarrizko zerbitzuak eta gizarte-babesa jar ditzakete —askok jarri dituzte—. Eta ikusi dute, BPGren ehuneko txiki bat inbertituz gero hasieran, etekinek nabarmen gainditzen dutela hasierako inbertsioa.

## Bizi-zikloko kalteberatasunak

Pertsonek segurtasun-gabeziaren maila desberdinak eta kalteberatasun desberdinak bizitzen dituzte bizi-zikloko une bakoitzean. Hauek dira une

7. IRUDIA

**Herrialde askok Hego Asiako herrialde gehienek gaur egun duten baino per capita BPG baxuagoa zuten, gizarte-segurantzako neurriak hartzen hasi zirenean**




**Iturria:** Giza Garapenari buruzko Txostenak kalkulatua, Maddisonen oinarrituta (2010).

erabakigarrienak: lehen haurtzaroa, gaztarotik helduarora igarotzeko unea eta helduarotik zahartzarora igarotzekoa. Funtsezkoa da esku-hartzeak garaiz egitea; izan ere, ez bazaio une egokian laguntzen gaitasunen garapenari, garestia da aurrerago hutsune horiek konpontzea. Lehen haurtzaroko garapenak argi erakusten du unibertsaltasuna lagungarria dela giza gaitasunetan egiten diren inbertsioen onurak bizi-ziklo osoan jasotzeko.

Dena den, normalean, baliabide gutxi erabiltzen dira haurtzaroko garapenerako eta gastu soziala handituz joaten da adinarekin. Pertsonek adinean aurrera egin ahala osasunean, hezkuntzan eta ongizatean gero eta gastu handiagoa egiteak ez du laguntzen bizitzaren hasierako urteetan gaitasunak garatzen (8. irudia).

## Gizarte-babesa indartzea

Gizarte-babesak —langabezia-aseguruak, pentsio-programak, lan-merkatuaren arauketak...— ezbeharren aurkako estaldura eman diezaioke jendeari bizitzan zehar; bereziki, garai erabakigarrietan. Babes gehigarri bat emanez, gizarte-babeseko programek eragotzi dezakete familiek ondasunak saltzea, haurrak eskolatik ateratzea edota beharrezko osasun-laguntza atzeratzea —guztiak ere kaltegarriak epe luzeko ongizaterako—. Gainera, gizarte-babeseko programak kudeatzeko erabiltzen diren mekanismoak eta banaketa-sareak lagungarriak izan daitezke krisi-egoeretan berehalako erantzunak eta laguntza emateko, hala nola hondamendi naturaletan eta lehorteetan.

Horrez gain, gizarte-babes askok zeharkako eragin positiboak dituzte. Langabezia-aseguruek lan-merkatuetako lan-aukerak hobetzen dituzte, aukera ematen dietelako langabeei beren abileziekin eta esperientziarekin bat datozen lanak aukeratzeko, lehenengo aurkitzen duten lana hartzera behartu beharrean. Ikusi ahal izan da familiei diru-laguntzak emateak lan-merkatuan

Gizarte-babes unibertsal sendoa izateak, pertsonen erresilientzia handitzeaz gain, ekonomia osoaren erresilientzia ere indartu dezake

## 8. ITURRIA

**Adinean aurrera egin ahala osasunean, hezkuntzan eta ongizatean gero eta gastu handiagoa egiteak ez du laguntzen bizitzaren hasierako urte erabakigarrietan gaitasunak garatzen**




**Iturria:** Karoly eta beste batzuk 1997.

parte hartzera bultzatzen dituela familiako kideak, baliabideak ematen dizkielako aukera hobeak bilatzeko; adibidez, lan bila migratzeko. Batzuek diote laguntza horrek murriztu egin dezakeela lanera itzultzeko motibazioa. Politikaren diseinuaren baitan dago hori, neurri handi batean. Nolanahi ere, datuen arabera, lanmerkatuaren arauketek onura neto bat dute eta berdintasun-eza murriztu dezakete.

Gizarte-babesa bideragarria da garapenaren hasierako faseetan, eta beste onura batzuk ere ekar ditzake; adibidez, gastua bultzatzea eta pobrezia murriztea. Gizarte-babesak konpentsatu egiten du ekoizpenaren aldakortasuna, dirusarreren gorabeherak murriztuz. Gizarte-babes unibertsalerako politika sendoek, pertsonen erresilientzia hobetzeaz gain, ekonomia osoaren erresilientzia ere indartzen dute.

### Enplegu betea sustatzea

> Gizarteek enplegu betea izan beharko lukete helmugatzat garapenaren maila guztietan

50eko eta 60ko hamarkadetako politika makroekonomikoetan, enplegu betea helburu nagusietako bat zen. Helburu hori munduko agendatik desagertu zen, 1973ko eta 1979ko petrolio-krisien ondorengo egonkortze-aroan. Konpromiso hartara itzultzeko garaia dugu orain, garapena sendoa eta iraunkorra izatea nahi badugu. Eskandinaviako ereduan, adibidez, enplegu betea ezinbestekoa da gizarte-zerbitzu unibertsalak ziurtatzeko, enplegu-tasa handiak behar adina zerga jasotzeko aukera ematen duelako.

Bestalde, enplegu beteak gizarte-onurak dakartza. Langabeziak kostu ekonomiko eta sozial handia du, eta ekoizpen-galera etengabe bat sortzen du, bai eta lan-abilezien eta produktibitatearen beherakada ere. Ekoizpena eta zergak murriztearen ondorioz, gastu publikoa handitu behar izan da, askotan, langabezia-asegurua ordaintzeko. Gainera, epe luzeko langabeziak osasun-arazoak ekar ditzake (fisikoak nahiz mentalak) eta arriskuan jar dezake bizi-kalitatea (baita haurren hezkuntza ere). Are gehiago, langabeziaren ondorioz, krimenek, suizidioek, indarkeriak, droga-abusuak eta beste gizarte-arazo batzuek gora egin ohi dute; beraz, lan baten gizarte-onurak onura pribatua —soldata— baino askoz harago doaz.

Bestalde, enpleguak gizartearen egonkortasuna eta kohesioa ere areagotzen du, eta, lanpostu duinei esker, pertsonek gaitasun handiagoa izaten dute ezbeharrei aurre egiteko. Lanpostuek, bizibidea ateratzeko moduak diren aldetik, giza agentzia indartzen dute, eta balio handia dute

familientzat eta komunitateentzat. Lanpostu finko batek ere balio psikologiko handia du.

Hortaz, epe ertain-luzera kalteberatasuna murrizteko, egiturak aldatzen dituzten, ezkutuko ekonomia desagerrarazten duten eta lanbaldintzak arautzen dituzten politikak behar dira. Nolanahi ere, politika horiek ez dira nahikoa langileriaren gehiengoaren kalteberatasunei epe laburrean aurre egiteko, eta, beraz, politikak funtsezkoak dira, lan tradizional eta informaletan diharduten langileen kalteberatasunak epe laburrean zuzentzeko eta haien bizibidea bermatzeko.

Modu zabalean enplegu produktiboa sortzeko aldaketa horrek garapen ekonomikorako estrategia eraginkorragoak behar ditu, barnean hartuta inbertsio publiko handiagoak egitea azpiegituretan, giza gaitasunetan, berrikuntzan eta merkataritza-politika estrategikoetan, bereziki esportazioetan.

## Instituzio arduratsuak eta gizarte-kohesioa

Instituzio arduratsuak ezinbestekoak dira giza erresilientzia eraikitzeko. Politika eta baliabide egokien bidez, lana, osasun-laguntza eta hezkuntza-aukera egokiak izan ditzakegu guztiok, batez ere pobreek eta kalteberek. Izan ere, taldeen arteko berdintasun-ezak aitortzen eta murrizten dituzten estatuek gaitasun handiagoa dute unibertsaltasunaren printzipioa betetzeko, gizarte-kohesioa sortzeko eta krisiak prebenitu edota haietatik suspertzeko.

Aspalditik datozen kalteberatasunak bazterketa historikoetan errotuta daude; emakumeek gizarte patriarkaletan, beltzek Hego Afrikan eta Estatu Batuetan, eta pariek Indian diskriminazioa bizi dute, aspaldidaniko jarduera kultural eta gizarte-arauen ondorioz. Gobernantza-instituzio arduratsuak funtsezkoak dira, gizartearen atsekabea piztu dezakeen injustizia-, kalteberatasun- eta bazterketa-sentsazioa gainditzeko. Era berean, funtsezkoa da herritarrek gizartearekiko konpromisoa hartzea eta mobilizazio kolektiboak antolatzea, estatuek pertsona kalteberen interesak eta eskubideak onartuko dituztela bermatzeko.

Estatuek berdintasun-ez horizontalak murrizten lagundu dezakete, esku-hartze politikoen bidez. Zuzeneko esku-hartzeek, hala nola afirmazio-ekintzek, injustizia historikoei berehala aurre egiteko balio dezakete, baina epe luzera duten eragina zalantzazkoa da; gainera, ezin dituzte beti konpondu berdintasun-ez iraunkorren kausa estrukturalak. Talde kalteberei epe laburrean erantzunak ematen dizkieten eta epe luzera gizarte-zerbitzuetara, enplegura eta gizarte-babesera sarbide iraunkorra izaten laguntzen dieten politikak behar dira; adibidez, pizgarri eta zehapen formalak, prebentzio-legeak kasu. Eskubideetan oinarritutako legeek hobekuntza handiak ekar diezazkiekete talde kalteberei, baliabide legalak eta bozketa publikoa erabiltzeko aukera ematen baitiete, instituzioek huts egiten dietenean.

Gizarte indartsuak eraikitzeko, beharrezkoa da arauak aldatzea, tolerantzia sortzeko eta gizarte-kohesioa handitzeko. Zenbat eta kohesionatuago egon gizarteak, orduan eta hobeto babesten dituzte pertsonak ezbeharretatik eta orduan eta gehiago zabaltzen dituzte unibertsaltasun-politikak. Gizarte-kohesiorik ezak gatazka eta indarkeria dakartza, eta kohesiorik ez badago, ez dago gaitasunik aldaketa sozial eta ekonomiko azkarrei edota ezbeharrei eraginkortasunez erantzuteko. Ekitatea, inklusioa eta justizia lortzeko helburuen alde lan egiteak gizarte-instituzioak indartzen ditu eta gizarte-kohesioa handitzen du.

## Krisietarako prestatzeko eta haietatik suspertzeko gaitasuna eraikitzea

Hondamendi naturalek agerian uzten dituzte eta areagotu egiten dituzte kalteberatasunak, hala nola pobrezia, berdintasun-eza, ingurumenaren degradazioa eta gobernantza ahula. Nahikoa prestatuta ez dauden, arriskuez jabetzen ez diren edota prebentzio-gaitasun txikia duten herrialdeek eta komunitateek askoz ere modu gogorragoan jasaten dituzte hondamendien eraginak. Ahalegin handiagoak egin behar dira herrialdeetan eta eskualdeetan alarma-sistema goiztiarrak indartzeko. Eskualdeetan goiz abisatzeko lankidetzan aritzea oso eraginkorra izan daiteke, naturako arriskuek hainbat herrialderi batera eragiten baitiete askotan. Goiz abisatzea hondamendi-arriskua murrizteko funtsezko elementu bat da. Biziak salbatzen ditu eta galera ekonomiko eta materialak murrizten ditu.

Herrialde bat oso prestatuta egon arren ere, ezbeharrak gertatu egiten dira, eta askotan ondorio suntsitzaileak izaten dituzte. Kasu horietan, helburu nagusia da, berreraikitzean, erresilientzia sozial, material eta instituzionala handitzea. Instituzio ahulek eta gatazkek zaildu egin dute muturreko eguraldi-gertaerei erantzutea. Herrialde baten

Krisien ondorioak murriztu egin daitezke, aurretik prestatuta egonez gero eta leheneratzeko ahaleginak eginez gero; gizarteen erresilientzia ere handitu dezake horrek

erresilientziak barnean hartzen du hondamendietatik azkar eta ondo leheneratzeko gaitasuna. Hor sartzen da hondamendien berehalako efektuak kudeatzea, bai eta beste ondorio sozioekonomiko batzuk eragozteko neurri espezifikoak hartzea ere. Ezbeharrei aurre egiteko prestatuta ez dauden gizarteek askotan askoz kalte eta galera handiagoak eta luzeagoak izaten dituzte.

Gizarte-kohesioa eraikitzeko ahaleginak testuinguruaren eta egoera nazionalaren baitan egoten badira ere, badaude elementu komun batzuk. Bazterketaren eta marjinazioaren aurka egiten duten, partaidetza-sentsazioa sortzen duten, konfiantza sustatzen duten eta gizarte-mailan gora egiteko aukera ematen duten politikek eta instituzioek gatazka-aukerak murrizten dituzte. Jendearen kontzientzia eta informazioaren eskuragarritasuna areagotzeak jendeak bakearen eta politika bakezaleagoen alde egitea bultza dezake. Bitartekari eta bitarteko fidagarriak izateak konfiantza eraiki dezake talde polarizatuen artean, eta akordioak egiten lagun dezake garrantzi nazionaleko kontuetan: hauteskundeen antolaketan, konstituzio berri baten elementuetan... Lanpostuetan eta bizibideetan inbertitzea lagungarria izan daiteke komunitateak eta pertsonak krisien ondoren bere onera itzultzeko epe laburrean eta erresilientzia eraikitzeko etorkizuneko krisietarako.

## Aurrerapenetan eta ekintza kolektiboan sakontzea

Globalizazioak herrialdeak elkartu ditu eta aukera berriak sortu ditu. Baina ezbeharrak azkarrago transmititzeko arriskua ere areagotu du. Azkenaldiko gertaerek erakutsi dute alde handiak daudela globalizazioa kudeatzeko moduan, zenbait kontutan: elikagaien segurtasunean, energiaren eskuragarritasunean... Litekeena da mugaz gaindiko erronka horiek hortxe jarraitzea hurrengo hamarkadetan ere, munduko gobernantza-sareak ez baitaude behar bezala prestatuta ezbeharrak prebenitzeko eta minimizatzeko. Litekeena da, halaber, politika-egileak eta buruzagiak ez egotea prestatuta aldaketa horien abiada bizirako eta tamainarako.

Kalteberatasunen jatorriak eta eraginak gero eta globalagoak dira, eta, beraz, beharrezkoa da ekintza kolektiboen bidez aurre egitea eta gobernantza hobetzea

### Itun sozial globalaren elementuak

Herrialdeek gaitasunak handitu eta aukeraketak babestu ditzakete, baina horretarako behar diren neurriak gauzatzea errazagoa izaten da konpromiso globalak daudenean eta laguntza globala eskuragarri dagoenean. 2015en ondorengo agenda prestatzen eta garapen iraunkorraren helburuak jartzen ari diren honetan, nazioarteak eta estatu kideek aukera bikaina dute zenbait konpromiso hartzeko, helburu nagusi gisa: zerbitzu publikoak unibertsalak izatea, gizarte-babes nazionalaren oinarriak jartzea eta enplegu betea lortzea, esaterako. Helburu horiek lortzeko konpromiso globalei esker, herrialdeetan esparru politiko bat ireki daiteke, estatuek zehazteko zer ikuspegi diren egokienak beren testuinguruetan enplegua sortzeko eta gizarte-zerbitzuak eta gizarte-babesa emateko, baina hitzarmen globalak ere beharrezkoak dira, ekintzak eta konpromisoa bultza ditzaketelako eta laguntza finantzarioa eta bestelako laguntza sor dezaketelako.

### Gobernantza globala hobetzea

Gaur egun, erronka asko pilatzen eta gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira. Mehatxu-mota bakoitzari aurre egiteko politika espezifikoak beharrezkoak dira, baina are beharrezkoagoa da gobernantza-egituran aldaketak egitea, ez badugu nahi aurrerapena finantzaren aldakortasunean, merkataritza-erregimen desorekatuetan eta klima-aldaketan oinarrituta egotea (2. laukia).

Bestalde, zenbait politika aldatu behar dira, ezbehar-mota batzuk murrizteko. Erronka globalen zerrenda luzea da, eta gure gomendioak ez dira inolaz ere zehatz-mehatzak, baina badakigu finantza- eta merkataritza-sistemak moldatu egin daitezkeela eta ingurumen-mehatxuak murriztu, instituzioak ondasun publiko globalak ematera berbideratuz gero. Komeni da finantza-mekanismoek eta instituzioek likidezia eskuragarri jartzea, finantza-fluxuen gorabeherak murriztea eta kutsapena minimizatzea. Nekazaritzako eta zerbitzuetako merkataritza zuzentzen duten arauak ere berrikusi behar dira, oinarritzat hartuta aldebiko merkataritza-akordioak egiteko edota merkaturatzea eragozten duten xedapenak gehitzeko joera. Klima-aldaketa da munduko garapenaren agendaren erronka handienetako bat. Klima-egonkortasunik —ondasun publiko global bat— eza eta muturreko eguraldi-gertaerekiko eta elikagai-krisiekiko kalteberatasunak ikusi ahal izan ditugu, behin eta berriz, munduko zenbait eskualdetan. Berehalako ekintzak premiazkoak dira fronte horretan. Nahiz eta ekintza itxaropentsuak egin diren herrialdez azpiko tokietan, alderdi anitzeko ekintzak behar dira, ikuspegi oso bat izateko.

## 2. LAUKIA

**Munduko gobernantzaren agendako lau gako**

### Hyogo Ekintza Esparrua

2005ean, 168 herrialdek Hyogo Ekintza Esparrua adostu zuten, hondamendi-arrisku globala murrizteko 2015erako.[1] Esparruak zenbait ekintza proposatzen ditu, tokiko eta herrialdeko instituzioen gaitasuna eraikitzeko, alarma-sistema goiztiarrak sustatzeko, segurtasunaren eta erresilientziaren kultura bultzatzeko, kalteberatasunaren kausak murrizteko eta hondamendietarako prestatzeko.

Esparruak hondamendi-arriskua murriztera bideratu ditu ekintza kolektiboak herrialdeetako, eskualdeetako eta nazioarteko agendetan. Baina gauza gehiago daude egiteko, eta aurrerapena ez da berdina izan herrialde edo ekintza-eremu guztietan. Honako erronka hauek geratzen dira oraindik; adierazleak garatzea eta erabiltzea eta alarma-sistema goiztiarrak jartzea arrisku anitzeko inguruneetan, eta estatuek gaitasun handiagoa izatea hondamendi-arriskuaren murrizketa txertatzeko garapen iraunkorraren politiketan eta herrialdeko eta nazioarteko plangintzetan.

### Munduko Goi-bilera Humanitarioa

2016an, Munduko Goi-bilera Humanitarioa egingo da. Goi-bileraren helburua da ekintza humanitarioak globalago, eraginkorrago eta inklusiboago egitea —eta oso azkar aldatzen den mundu honen beharretara egokitzea—.[2] Nazioarteko erakunde humanitarioak kalteberatasuna murriztearen eta arriskuak kudeatzearen alorrean koordinatzeko aukera izango da.

Larrialdi humanitario konplexuen gorakadari erantzuteko, arrisku humanitarioak murrizteko eta kudeatzeko ikuspuntuak identifikatuko dira lehendabizi. Goi-bilerak aukera emango du ebaluatzeko nola har dezaketen eragile humanitarioek eta garapen-eragileek ikuspegi sistematiko eta kohesionatuago bat programak antolatu, lehenetsi eta finantzatzeko —eta nola koordina daitezkeen ekintzak arlo ekonomikoan, sozialean eta ingurumen-arloan—. Eragindako herrialdeen, dohaintza-emaileen eta nazioarteko erakundeen lankidetza bultzatuko du, elkarrekin garapen-estrategia humanitarioak eraikitzeko.

### Klima-aldaketa—2 graduko muga

2009ko Kopenhageko Akordioan eta 2010eko Cancúngo Hitzarmenetan, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko (UNFCCC) 195 kideek erabaki zuten munduko tenperaturaren batez besteko igoera 2 gradura baino gutxiagora mugatzea, industriaurreko maila hartuta oinarritzat.[3] Konpromiso horren oinarrian honako adostasun zientifiko orokor hau dago: 2 graduko igoera dela munduak jasan dezakeen handiena, eragin kaltegarri arriskutsuak mugatu nahi baditugu.

Nolanahi ere, nazioartearen promesak eta konpromisoak ez dira nahikoa helburu hori lortzeko. Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Taldearen (IPCC) aurreikuspenen arabera, munduko tenperaturak 1,5 gradu egin dezake gora XXI. mendearen bukaerarako, eta erraza izango litzateke 2 graduko muga gainditzea, ez bada emisioak murrizteko neurririk hartzen.[4] Helburua lortzea teknikoki eta ekonomikoki bideragarria da oraindik, baina anbizio politikoa behar da, egungo emisioen eta mundua 2020rako 2 gradutik beherako ibilbidean jarriko duen emisio-mailaren arteko aldea desagerrarazteko.

### 2015en ondorengo agenda eta garapen iraunkorraren helburuak

2015en ondorengo agenda eta garapen iraunkorraren helburuak prestatzen ari garen honetan, nazioarteak aukera paregabea du kalteberatasunaren murrizketa lehentasuntzat hartzeko. Milurtekoko Garapen Helburuek pobrezia murrizten eta askoren bizitzak hobetzen lagundu zuten. Baina aurrerapenak jarraituko duela bermatzeko, beharrezkoa da ezbeharrak murriztea eta pertsonek haiei aurre egiteko duten gaitasuna hobetzea. Ildo horretan, zero pobrezia lortzeko eskaera zero pobrezian irautera zabaldu beharko litzateke, eta beste arlo batzuetan ere aurrerapenek iraun egin beharko lukete. Hondamendi naturalekiko, klima-aldaketarekiko eta ezbehar finantzarioekiko kalteberenak direnak bereziki ahaldundu eta babestu behar dira. Kalteberatasunaren murrizketa funtsezko alderdi bihurtu behar dugu etorkizuneko garapen-agendetan, aurrerapena iraunkorra dela bermatzeko.

Oharrak
1. UNISDR 2005. 2. UNOCHA 2014. 3. UNFCCC 2009, 2011. 4. IPCC 2013.

## Mundu seguruago bat lortzeko ekintza kolektiboak

Mugaz gaindiko mehatxuekiko kalteberatasuna murriztu nahi badugu —gobernantza-egitura konponduz ezbeharrak murrizteko, edota jendeak ezbeharrei aurre egiteko duen gaitasuna handituz—, buruzagitza eta lankidetza handiagoa behar dugu estatuen eta nazioarteko erakundeen artean. Horrez gain, ikuspegi koherenteago bat behar dugu, lehentasunak jarri eta zeharkako ondorioak murrizteko —eta konpromiso sistematikoagoa gizarte zibilarekin eta sektore pribatuarekin—.

Koordinazio, lankidetza eta buruzagitza faltak ito egiten du aurrerapena, erronka globalei aurre egitea eta kalteberatasunak murriztea zailtzen duelako. Oraindik ez zaie heldu gobernantza-lankidetza globalaren geldialdia konpontzeko proposamenei, eta mundua izugarri aldatu da azken hamarkadan. Erronka globalak sekula baino presazkoagoak dira, eta munduko eremu geopolitikoa ere desberdina da. 2013ko Txostenean azpimarratu genuen moduan, Hegoaldearen goraldiak aukera ematen digu gobernantza globalean ordezkaritza zabaltzeko —eta gobernantza eraginkorragoa izateko—. Baina nazioarteko lankidetzan eta buruzagitzan beste irmotasun bat izatea eskatzen du horrek.

Gobernantza globalean, atalka antolatzeko joera dago, eta instituzio bereizi bakoitzak arlo bat lantzen du: merkataritza, klima, finantza, migrazioa... Horrek zaildu egiten du sistema-ikuspegi bat hartzea erronka globalen gainean, edo estatuen eta nazioarteko agentzien ekintzek dituzten zeharkako ondorio eta kontraesanak identifikatzea. Gobernantza globalaren egiturarekin lotutako

**EKARPEN BEREZIA** *Joseph Stiglitz, Ekonomiako Nobel sariduna*

**Kalteberatasunaz dugun ikuspegia zabaltzea**

Nazio Batuek aspalditik azpimarratu izan dute giza segurtasuna, alderdi guztietan. Munduko Bankuko ekonomialari nagusia nintzenean, inkestak egin genizkien mundu osoko milaka pobreri, jakiteko zerk kezkatzen zituen gehien. Zerrendaren lehen postuan —diru-sarrerarik ez izateak eta beren bizitzei eragiten zieten kontuetan erabakitzeko nahikoa hitz ez izateak eragiten zizkien kezka normalez gain—, "segurtasunik eza - kalteberatasuna" zegoen.

Honako hau da kalteberatasunaren oinarrizko definizioa: bizi-mailan beherakada handi bat eragiten duen zerbaiten eraginpean egotea. Bereziki kezkagarria izaten da luze irauten duenean eta bizi-maila atalase jakin batetik behera jaisten denean, benetako gabeziaraino.

Ekonomialariek BPG soilik aztertu izan dute beti, eta, beraz, ez dute kalteberatasuna kontuan hartu. Pertsonei ez zaie arriskua gustatzen. Kalteberak direla sentitze hutsak ongizate-galera handiak ekartzen ditu —ezbehar baten ondorioak bizi baino are lehenago—. Hain zuzen ere, CMEPSPk BPGri egiten zion kritika nagusia zen gure neurketek ez zutela behar bezala harrapatzen segurtasunak pertsonen eta gizartearen ongizaterako zuen garrantzia.

Kalteberatasuna murrizteko politikak egin behar baditugu, funtsezkoa da ikuspegi zabal batetik ikustea zerk eragiten duen kalteberatasun hori. Pertsonak eta gizarteak ekonomialariok "shock" deritzegunen eraginpean daude ezinbestean; hau da, bizi-maila nabarmen okertzeko indarra duten gertaera lazgarrien eraginpean. Zenbat eta handiagoak izan shock edo ezbehar horiek, orduan eta sakonagoak eta luzeagoak ondorioak, eta zenbat eta handiagoa kalteberatasuna, orduan eta handiagoak ondorioak ere. Baina pertsonek eta gizarteek ezbeharrei aurre egiteko mekanismoak garatzen dituzte. Gizarte eta ekonomia batzuek beste batzuek baino lan hobea egin dute ezbeharrei aurre egiteko gaitasuna hobetzen. Ezbehar handien eraginpean ez egoteko ezer egin ez duten eta biztanleriaren zati handi bat haiei aurre egiteko mekanismo egokirik gabe utzi duten gizarteek dituzte kalteberatasunik handienak.

Kalteberatasuna eragiten duen alderdi nagusietako bat berdintasun-eza da —batzuetan, ondorio kaltegarriak izaten ditu beste faktore askotan ere—, eta era askotan eragiten du. Berdintasun-ezak ezegonkortasuna dakar, eta ekonomiako gorabehera handien maiztasuna handitzen du. Muturreko berdintasun-ezek adierazten dute biztanleriaren zati handi bat pobrezian bizi dela —eta gaitasun gutxiago dutela ezbeharrei aurre egiteko—. Ekonomiaren alorreko berdintasun-ezek politikan ere berdintasun-ezak dakartzate ezinbestean —ondorioz, gobernuek aukera gutxiago dituzte gizarte-babeseko sistemak jartzeko eta behartsuenak ezbehar handien ondorioetatik babesteko—. Hasi behar dugu pentsatzen berdintasun-eza ez dela kontu moral bat soilik —hori ere baden arren—, eta funtsezko kezka ekonomiko bat ere badela, ezinbestekoa giza garapenaz jarduteko, eta oso garrantzitsua kalteberatasuna aztertzeko.

(Bertsio laburtua)

kontu asko eta gainjarriak oro har eta zehazki ebaluatu behar dira, ziurtatzeko lankidetza globala eraginkorra dela eta arlo garrantzitsuenetara bideratuta dagoela. Egokiena izango litzateke aditu independenteen talde ez-politiko batek egitea ebaluazio horiek, sistema-ikuspegi objektiboa har dezaketelako arazo globalen gainean eta gomendioak eman diezazkieketelako gobernu-erakundeei.

Gobernantza hobetzeko, komeni da herritarrek parte-hartze zuzena izatea. Izan ere, jendearekin harreman zuzena izatean, pertsonen kalteberatasunei buruzko informazio zehatza lor dezakete gobernuek, bai eta esku-hartze politikoek dituzten ondorioen jarraipena egin ere. Estatuaren esku-hartze eraginkorrak eta baliabide publikoak ekar ditzake konpromiso horrek. Baina, pertsonek konpromiso hori hartzeko, erabakietan eragiteko askatasuna, segurtasuna, gaitasuna eta hitza eman behar zaie. Horrez gain, ekintza kolektiboen bidez nahi dituzten ondorioak lor ditzaketela sinetsi behar dute.

Ahalegin global bat egin behar da, ziurtatzeko globalizazioak giza garapena handitzen eta babesten duela —errazagoa da herrialdean neurriak hartzea, konpromiso globalak daudenean eta laguntza globala eskuragarri dagoenean—

*  *  *

Hazkunde eta garapen global inklusibo, iraunkor eta indartsuagoa lortzeko, ezinbestekoa da jabari publiko globalaren ikuspegi positiboa izatea, bai eta "nahi dugun mundua" naturak eta gizakiak sortutako ondasun publikoak arrakastaz hornitzearen baitan dagoela onartzea ere. Merkatuek, garrantzitsuak diren arren, ezin dituzte gizarte- eta ingurumen-babes egokiak eman beren kabuz. Estatuak, banaka nahiz taldean, lankidetzan aritzeko prest agertu behar dira —politika nazionalak bateratuz edo nazioarteko ekintza kolektiboen bidez—. Gobernuek politikarako gune handiagoa behar dute, babesak eta enplegua emateko jendeari. Gizarte zibilak borondate politikoa sor dezake, baina, horretarako, herritarrek ulertu behar dute baliagarriak direla mugaz gaindiko lankidetzarako eta ondasun publikoak onartzeko.

Aurrerabideak lana ematen du. Litekeena da herrialdeek Milurtekoko Garapen Helburuetako asko betetzea 2015erako, baina arrakasta ez da automatikoa, eta irabaziek ez dute zertan betiko izan. Garapena urrats bat aurrerago eramateko, beharrezkoa da lorpenak kalteberatasunetatik eta ezbeharretatik babestea, erresilientzia areagotuz eta aurrerapenak handituz. Funtsezkoa da talde kalteberak identifikatzea eta jomugatzat hartzea, berdintasun-eza murriztea eta kalteberatasun estrukturalei heltzea, garapena pertsona bakoitzaren bizitza osora eta hurrengo belaunaldietara luzatzeko.

**GGIren 2013ko sailkapena eta sailkapen horrek 2012tik 2013ra bitartean izandako aldaketak**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Afganistan | 169 | 0 | |
| Afrika Erdiko Errepublika | 185 | 0 | |
| Albania | 95 | 2 | ↑ |
| Alemania | 6 | 0 | |
| Aljeria | 93 | 0 | |
| Ameriketako Estatu Batuak | 5 | 0 | |
| Andorra | 37 | 0 | |
| Angola | 149 | 0 | |
| Antigua eta Barbuda | 61 | –1 | ↓ |
| Arabiar Emirerri Batuak | 40 | 0 | |
| Argentina | 49 | 0 | |
| Armenia | 87 | 0 | |
| Australia | 2 | 0 | |
| Austria | 21 | 0 | |
| Azerbaijan | 76 | –1 | ↓ |
| Bahamak | 51 | 0 | |
| Bahrain | 44 | 0 | |
| Bangladesh | 142 | 1 | ↑ |
| Barbados | 59 | –1 | ↓ |
| Belgika | 21 | 0 | |
| Belize | 84 | 0 | |
| Benin | 165 | 0 | |
| Bhutan | 136 | 0 | |
| Bielorrusia | 53 | 1 | ↑ |
| Boli Kosta | 171 | 0 | |
| Boliviako Estatu Plurinazionala | 113 | 0 | |
| Bosnia-Herzegovina | 86 | 0 | |
| Botswana | 109 | –1 | ↓ |
| Brasil | 79 | 1 | ↑ |
| Brunei Darussalam | 30 | 0 | |
| Bulgaria | 58 | 0 | |
| Burkina Faso | 181 | 0 | |
| Burundi | 180 | 0 | |
| Cabo Verde | 123 | –2 | ↓ |
| Costa Rica | 68 | –1 | ↓ |
| Danimarka | 10 | 0 | |
| Djibuti | 170 | 0 | |
| Dominika | 93 | –1 | ↓ |
| Dominikar Errepublika | 102 | 0 | |
| Egipto | 110 | –2 | ↓ |
| Ekialdeko Timor | 128 | 1 | ↑ |
| Ekuador | 98 | 0 | |
| Ekuatore Ginea | 144 | –3 | ↓ |
| El Salvador | 115 | 0 | |
| Eritrea | 182 | 0 | |
| Erresuma Batua | 14 | 0 | |
| Errumania | 54 | 1 | ↑ |
| Errusiar Federazioa | 57 | 0 | |
| Eslovakia | 37 | 1 | ↑ |
| Eslovenia | 25 | 0 | |
| Espainia | 27 | 0 | |
| Estonia | 33 | 0 | |
| Etiopia | 173 | 0 | |
| Fiji | 88 | 0 | |
| Filipinak | 117 | 1 | ↑ |
| Finlandia | 24 | 0 | |
| Frantzia | 20 | 0 | |
| Gabon | 112 | –1 | ↓ |
| Gambia | 172 | 0 | |
| Georgia | 79 | 2 | ↑ |
| Ghana | 138 | 0 | |
| Ginea | 179 | –1 | ↓ |
| Ginea Bissau | 177 | 0 | |
| Grenada | 79 | –1 | ↓ |
| Grezia | 29 | 0 | |
| Guatemala | 125 | 0 | |
| Guyana | 121 | 0 | |
| Haiti | 168 | 0 | |
| Hegoafrika | 118 | 1 | ↑ |
| Herbehereak | 4 | 0 | |
| Honduras | 129 | 0 | |
| Hong Kong, Txina (ALB) | 15 | 0 | |
| Hungaria | 43 | 0 | |
| India | 135 | 0 | |
| Indonesia | 108 | 0 | |
| Irak | 120 | 0 | |
| Irango Islamiar Errepublika | 75 | –2 | ↓ |
| Irlanda | 11 | –3 | ↓ |
| Islandia | 13 | 0 | |
| Israel | 19 | 0 | |
| Italia | 26 | 0 | |
| Jamaika | 96 | –3 | ↓ |
| Japonia | 17 | –1 | ↓ |
| Jordania | 77 | 0 | |
| Kamerun | 152 | 0 | |
| Kanada | 8 | 0 | |
| Kanbodia | 136 | 1 | ↑ |
| Kazakhstan | 70 | 0 | |
| Kenya | 147 | 0 | |
| Kirgizistan | 125 | 1 | ↑ |
| Kiribati | 133 | 0 | |
| Kolonbia | 98 | 0 | |
| Komoreak | 159 | –1 | ↓ |
| Kongo | 140 | 0 | |
| Kongoko Errepublika Demokratikoa | 186 | 1 | ↑ |
| Koreako Errepublika | 15 | 1 | ↑ |
| Kroazia | 47 | 0 | |
| Kuba | 44 | 0 | |
| Kuwait | 46 | –2 | ↓ |
| Laosko Herri Errepublika Demokratikoa | 139 | 0 | |
| Lesotho | 162 | 1 | ↑ |
| Letonia | 48 | 0 | |
| Libano | 65 | 0 | |
| Liberia | 175 | 0 | |
| Libia | 55 | –5 | ↓ |
| Liechtenstein | 18 | –2 | ↓ |
| Lituania | 35 | 1 | ↑ |
| Luxenburgo | 21 | 0 | |
| Madagaskar | 155 | 0 | |
| Malawi | 174 | 0 | |
| Malaysia | 62 | 0 | |
| Maldivak | 103 | 0 | |
| Mali | 176 | 0 | |
| Malta | 39 | 0 | |
| Maroko | 129 | 2 | ↑ |
| Mauritania | 161 | –2 | ↓ |
| Maurizio | 63 | 0 | |
| Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia | 84 | 1 | ↑ |
| Mexiko | 71 | –1 | ↓ |
| Mikronesiako Estatu Federatuak | 124 | 0 | |
| Moldaviako Errepublika | 114 | 2 | ↑ |
| Mongolia | 103 | 3 | ↑ |
| Montenegro | 51 | 1 | ↑ |
| Mozambike | 178 | 1 | ↑ |
| Myanmar | 150 | 0 | |
| Namibia | 127 | 0 | |
| Nepal | 145 | 0 | |
| Niger | 187 | –1 | ↓ |
| Nigeria | 152 | 1 | ↑ |
| Nikaragua | 132 | 0 | |
| Norvegia | 1 | 0 | |
| Oman | 56 | 0 | |
| Pakistan | 146 | 0 | |
| Palau | 60 | 0 | |
| Palestinako Estatua | 107 | 0 | |
| Panama | 65 | 2 | ↑ |
| Papua Ginea Berria | 157 | –1 | ↓ |
| Paraguai | 111 | 0 | |
| Peru | 82 | 0 | |
| Polonia | 35 | –1 | ↓ |
| Portugal | 41 | 0 | |
| Qatar | 31 | 0 | |
| Ruanda | 151 | 0 | |
| Saint Kitts eta Nevis | 73 | 0 | |
| Saint Vincent eta Grenadinak | 91 | 0 | |
| Salomon Uharteak | 157 | 0 | |
| Samoa | 106 | –2 | ↓ |
| Santa Luzia | 97 | –4 | ↓ |
| Sao Tome eta Principe | 142 | –1 | ↓ |
| Saudi Arabia | 34 | 0 | |
| Senegal | 163 | –3 | ↓ |
| Serbia | 77 | 1 | ↑ |
| Seychelleak | 71 | –1 | ↓ |
| Sierra Leona | 183 | 1 | ↑ |
| Singapur | 9 | 3 | ↑ |
| Siriako Arabiar Errepublika | 118 | –4 | ↓ |
| Sri Lanka | 73 | 2 | ↑ |
| Sudan | 166 | 0 | |
| Suedia | 12 | –1 | ↓ |
| Suitza | 3 | 0 | |
| Surinam | 100 | 1 | ↑ |
| Swazilandia | 148 | 0 | |
| Thailandia | 89 | 0 | |
| Tajikistan | 133 | 1 | ↑ |
| Tanzaniako Errepublika Batua | 159 | 1 | ↑ |
| Togo | 166 | 1 | ↑ |
| Tonga | 100 | 0 | |
| Trinidad eta Tobago | 64 | 0 | |
| Tunisia | 90 | 0 | |
| Turkia | 69 | 0 | |
| Turkmenistan | 103 | 1 | ↑ |
| Txad | 184 | –1 | ↓ |
| Txekiar Errepublika | 28 | 0 | |
| Txile | 41 | 1 | ↑ |
| Txina | 91 | 2 | ↑ |
| Uganda | 164 | 0 | |
| Ukraina | 83 | 0 | |
| Uruguai | 50 | 2 | ↑ |
| Uzbekistan | 116 | 0 | |
| Vanuatu | 131 | –3 | ↓ |
| Venezuelako Bolibartar Errepublika | 67 | –1 | ↓ |
| Vietnam | 121 | 0 | |
| Yemen | 154 | 0 | |
| Zambia | 141 | 2 | ↑ |
| Zeelanda Berria | 7 | 0 | |
| Zimbabwe | 156 | 4 | ↑ |
| Zipre | 32 | 0 | |

**Oharra: datu eta metodologia sendoak erabiliz, 2012tik 2013ra bitartean herrialdeak sailkapenean zenbat postu igo diren edo jaitsi diren adierazten dute balio positibo edo negatiboek eta geziek; zuriz dauden espazioek, berriz, aldaketarik ez dela egon adierazten dute.**

# Giza garapenaren indizeak

| | | Giza Garapenaren Indizea | Berdintasun-ezaren arabera Doitutako GGI | | Giza berdintasun-ezaren koefizientea | Generoaren alorreko Berdintasun-ezaren Indizea | | Genero Garapenaren Indizea | | Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Balioa | Balioa | GGIren sailkapenarekiko aldea | | Balioa | Sailkapena | Balioa | Sailkapena | | |
| GGIren sailkapena | | 2013 | 2013 | 2013[a] | 2013 | 2013 | 2013 | 2013 | 2013[b] | Balioa[c] | Urtea eta inkesta[d] |
| **OSO GIZA GARAPEN HANDIA** | | | | | | | | | | | |
| 1 | Norvegia | 0,944 | 0,891 | 0 | 5,5 | 0,068 | 9 | 0,997 | 5 | .. | .. |
| 2 | Australia | 0,933 | 0,860 | 0 | 7,5 | 0,113 | 19 | 0,975 | 40 | .. | .. |
| 3 | Suitza | 0,917 | 0,847 | –1 | 7,6 | 0,030 | 2 | 0,953 | 76 | .. | .. |
| 4 | Herbehereak | 0,915 | 0,854 | 1 | 6,6 | 0,057 | 7 | 0,968 | 51 | .. | .. |
| 5 | Ameriketako Estatu Batuak | 0,914 | 0,755 | –23 | 16,2 | 0,262 | 47 | 0,995 | 7 | .. | .. |
| 6 | Alemania | 0,911 | 0,846 | 1 | 7,0 | 0,046 | 3 | 0,962 | 61 | .. | .. |
| 7 | Zeelanda Berria | 0,910 | .. | .. | .. | 0,185 | 34 | 0,971 | 47 | .. | .. |
| 8 | Kanada | 0,902 | 0,833 | –2 | 7,5 | 0,136 | 23 | 0,986 | 24 | .. | .. |
| 9 | Singapur | 0,901 | .. | .. | .. | 0,090 | 15 | 0,967 | 52 | .. | .. |
| 10 | Danimarka | 0,900 | 0,838 | 0 | 6,8 | 0,056 | 5 | 0,989 | 17 | .. | .. |
| 11 | Irlanda | 0,899 | 0,832 | –1 | 7,4 | 0,115 | 20 | 0,965 | 56 | .. | .. |
| 12 | Suedia | 0,898 | 0,840 | 3 | 6,4 | 0,054 | 4 | 1,004 | 6 | .. | .. |
| 13 | Islandia | 0,895 | 0,843 | 5 | 5,6 | 0,088 | 14 | 0,982 | 30 | .. | .. |
| 14 | Erresuma Batua | 0,892 | 0,812 | –4 | 8,6 | 0,193 | 35 | 0,993 | 13 | .. | .. |
| 15 | Hong Kong, Txina (ALB) | 0,891 | .. | .. | .. | .. | .. | 0,969 | 49 | .. | .. |
| 15 | Koreako Errepublika | 0,891 | 0,736 | –20 | 16,8 | 0,101 | 17 | 0,940 | 85 | .. | .. |
| 17 | Japonia | 0,890 | 0,779 | –6 | 12,2 | 0,138 | 25 | 0,951 | 79 | .. | .. |
| 18 | Liechtenstein | 0,889 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 19 | Israel | 0,888 | 0,793 | –4 | 10,4 | 0,101 | 17 | 0,984 | 29 | .. | .. |
| 20 | Frantzia | 0,884 | 0,804 | –2 | 8,9 | 0,080 | 12 | 0,989 | 17 | .. | .. |
| 21 | Austria | 0,881 | 0,818 | 4 | 7,1 | 0,056 | 5 | 0,935 | 91 | .. | .. |
| 21 | Belgika | 0,881 | 0,806 | 0 | 8,5 | 0,068 | 9 | 0,977 | 38 | .. | .. |
| 21 | Luxenburgo | 0,881 | 0,814 | 3 | 7,5 | 0,154 | 29 | 0,961 | 66 | .. | .. |
| 24 | Finlandia | 0,879 | 0,830 | 9 | 5,5 | 0,075 | 11 | 1,006 | 8 | .. | .. |
| 25 | Eslovenia | 0,874 | 0,824 | 9 | 5,7 | 0,021 | 1 | 1,006 | 8 | .. | .. |
| 26 | Italia | 0,872 | 0,768 | –1 | 11,6 | 0,067 | 8 | 0,962 | 61 | .. | .. |
| 27 | Espainia | 0,869 | 0,775 | 1 | 10,5 | 0,100 | 16 | 0,985 | 25 | .. | .. |
| 28 | Txekiar Errepublika | 0,861 | 0,813 | 9 | 5,5 | 0,087 | 13 | 0,969 | 49 | .. | .. |
| 29 | Grezia | 0,853 | 0,762 | 0 | 10,5 | 0,146 | 27 | 0,959 | 69 | .. | .. |
| 30 | Brunei Darussalam | 0,852 | .. | .. | .. | .. | .. | 0,981 | 31 | .. | .. |
| 31 | Qatar | 0,851 | .. | .. | .. | 0,524 | 113 | 0,979 | 32 | .. | .. |
| 32 | Zipre | 0,845 | 0,752 | –3 | 10,9 | 0,136 | 23 | 0,940 | 85 | .. | .. |
| 33 | Estonia | 0,840 | 0,767 | 3 | 8,5 | 0,154 | 29 | 1,042 | 70 | .. | .. |
| 34 | Saudi Arabia | 0,836 | .. | .. | .. | 0,321 | 56 | 0,897 | 112 | .. | .. |
| 35 | Lituania | 0,834 | 0,746 | –3 | 10,4 | 0,116 | 21 | 1,036 | 58 | .. | .. |
| 35 | Polonia | 0,834 | 0,751 | –2 | 9,7 | 0,139 | 26 | 1,010 | 14 | .. | .. |
| 37 | Andorra | 0,830 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 37 | Eslovakia | 0,830 | 0,778 | 9 | 6,2 | 0,164 | 32 | 1,000 | 1 | .. | .. |
| 39 | Malta | 0,829 | 0,760 | 5 | 8,2 | 0,220 | 41 | 0,954 | 75 | .. | .. |
| 40 | Arabiar Emirerri Batuak | 0,827 | .. | .. | .. | 0,244 | 43 | 0,958 | 70 | .. | .. |
| 41 | Txile | 0,822 | 0,661 | –16 | 18,5 | 0,355 | 68 | 0,962 | 61 | .. | .. |
| 41 | Portugal | 0,822 | 0,739 | 0 | 9,8 | 0,116 | 21 | 0,970 | 48 | .. | .. |
| 43 | Hungaria | 0,818 | 0,757 | 7 | 7,3 | 0,247 | 45 | 0,998 | 4 | .. | .. |
| 44 | Bahrain | 0,815 | .. | .. | .. | 0,253 | 46 | 0,961 | 66 | .. | .. |
| 44 | Kuba | 0,815 | .. | .. | .. | 0,350 | 66 | 0,962 | 61 | .. | .. |
| 46 | Kuwait | 0,814 | .. | .. | .. | 0,288 | 50 | 0,987 | 22 | .. | .. |
| 47 | Kroazia | 0,812 | 0,721 | –2 | 11,1 | 0,172 | 33 | 0,987 | 22 | .. | .. |
| 48 | Letonia | 0,810 | 0,725 | 0 | 10,3 | 0,222 | 42 | 1,033 | 52 | .. | .. |
| 49 | Argentina | 0,808 | 0,680 | –4 | 15,3 | 0,381 | 74 | 1,001 | 2 | 0,015[e] | 2005 N |
| **GIZA GARAPEN HANDIA** | | | | | | | | | | | |
| 50 | Uruguai | 0,790 | 0,662 | –8 | 15,7 | 0,364 | 70 | 1,015 | 25 | .. | .. |
| 51 | Bahamak | 0,789 | 0,676 | –3 | 14,0 | 0,316 | 53 | .. | .. | .. | .. |
| 51 | Montenegro | 0,789 | 0,733 | 5 | 7,1 | .. | .. | .. | .. | 0,012[f] | 2005/2006 M |
| 53 | Bielorrusia | 0,786 | 0,726 | 6 | 7,5 | 0,152 | 28 | 1,021 | 32 | 0,001 | 2005 M |
| 54 | Errumania | 0,785 | 0,702 | 4 | 10,4 | 0,320 | 54 | 0,973 | 43 | .. | .. |
| 55 | Libia | 0,784 | .. | .. | .. | 0,215 | 40 | 0,931 | 93 | .. | .. |
| 56 | Oman | 0,783 | .. | .. | .. | 0,348 | 64 | .. | .. | .. | .. |
| 57 | Errusiar Federazioa | 0,778 | 0,685 | 3 | 11,6 | 0,314 | 52 | 1,038 | 61 | .. | .. |
| 58 | Bulgaria | 0,777 | 0,692 | 5 | 10,8 | 0,207 | 38 | 0,994 | 8 | .. | .. |

| GGIren sailkapena | | Giza Garapenaren Indizea – Balioa | Berdintasun-ezaren arabera Doitutako GGI – Balioa | Berdintasun-ezaren arabera Doitutako GGI – GGIren sailkapenarekiko aldea | Giza berdintasun-ezaren koefizientea | Generoaren alorreko Berdintasun-ezaren Indizea – Balioa | Generoaren alorreko Berdintasun-ezaren Indizea – Sailkapena | Genero Garapenaren Indizea – Balioa | Genero Garapenaren Indizea – Sailkapena | Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea – Balioa[c] | Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea – Urtea eta inkesta[d] |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2013 | 2013 | 2013[a] | 2013 | 2013 | 2013 | 2013 | 2013[b] | | |
| 59 | Barbados | 0,776 | .. | .. | .. | 0,350 | 66 | 1,021 | 32 | .. | .. |
| 60 | Palau | 0,775 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 61 | Antigua eta Barbuda | 0,774 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 62 | Malaysia | 0,773 | .. | .. | .. | 0,210 | 39 | 0,935 | 91 | .. | .. |
| 63 | Maurizio | 0,771 | 0,662 | –2 | 14,1 | 0,375 | 72 | 0,957 | 72 | .. | .. |
| 64 | Trinidad eta Tobago | 0,766 | 0,649 | –6 | 15,0 | 0,321 | 56 | 0,994 | 8 | 0,007 | 2006 M |
| 65 | Libano | 0,765 | 0,606 | –17 | 20,3 | 0,413 | 80 | 0,900 | 110 | .. | .. |
| 65 | Panama | 0,765 | 0,596 | –18 | 21,4 | 0,506 | 107 | 0,978 | 36 | .. | .. |
| 67 | Venezuelako Bolibartar Errepublika | 0,764 | 0,613 | –10 | 19,4 | 0,464 | 96 | 0,999 | 2 | .. | .. |
| 68 | Costa Rica | 0,763 | 0,611 | –11 | 19,1 | 0,344 | 63 | 0,973 | 43 | .. | .. |
| 69 | Turkia | 0,759 | 0,639 | –3 | 15,6 | 0,360 | 69 | 0,884 | 118 | .. | .. |
| 70 | Kazakhstan | 0,757 | 0,667 | 9 | 11,8 | 0,323 | 59 | 1,015 | 25 | 0,004 | 2010/2011 M |
| 71 | Mexiko | 0,756 | 0,583 | –13 | 22,3 | 0,376 | 73 | 0,940 | 85 | 0,024 | 2012 N |
| 71 | Seychelleak | 0,756 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 73 | Saint Kitts eta Nevis | 0,750 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 73 | Sri Lanka | 0,750 | 0,643 | 1 | 14,2 | 0,383 | 75 | 0,961 | 66 | .. | .. |
| 75 | Irango Islamiar Errepublika | 0,749 | 0,498 | –34 | 32,1 | 0,510 | 109 | 0,847 | 128 | .. | .. |
| 76 | Azerbaijan | 0,747 | 0,659 | 7 | 11,5 | 0,340 | 62 | 0,952 | 77 | 0,009 | 2006 D |
| 77 | Jordania | 0,745 | 0,607 | –5 | 18,5 | 0,488 | 101 | 0,842 | 130 | 0,004 | 2009 D |
| 77 | Serbia | 0,745 | 0,663 | 12 | 10,9 | .. | .. | .. | .. | 0,001 | 2010 M |
| 79 | Brasil | 0,744 | 0,542 | –16 | 26,3 | 0,441 | 85 | .. | .. | 0,012[g] | 2012 N |
| 79 | Georgia | 0,744 | 0,636 | 4 | 14,0 | .. | .. | 0,941 | 84 | 0,008 | 2005 M |
| 79 | Grenada | 0,744 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 82 | Peru | 0,737 | 0,562 | –9 | 23,4 | 0,387 | 77 | 0,957 | 72 | 0,043 | 2012 D |
| 83 | Ukraina | 0,734 | 0,667 | 18 | 9,1 | 0,326 | 61 | 1,012 | 21 | 0,002[g] | 2007 D |
| 84 | Belize | 0,732 | .. | .. | .. | 0,435 | 84 | 0,963 | 60 | 0,030 | 2011 M |
| 84 | Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia | 0,732 | 0,633 | 7 | 13,3 | 0,162 | 31 | 0,944 | 83 | 0,007[f] | 2011 M |
| 86 | Bosnia-Herzegovina | 0,731 | 0,651 | 13 | 10,7 | 0,201 | 36 | .. | .. | 0,006[f] | 2011/2012 M |
| 87 | Armenia | 0,730 | 0,655 | 15 | 10,2 | 0,325 | 60 | 0,994 | 8 | 0,002 | 2010 D |
| 88 | Fiji | 0,724 | 0,613 | 6 | 15,1 | .. | .. | 0,937 | 89 | .. | .. |
| 89 | Thailandia | 0,722 | 0,573 | –2 | 20,0 | 0,364 | 70 | 0,990 | 14 | 0,004[g] | 2005/2006 M |
| 90 | Tunisia | 0,721 | .. | .. | .. | 0,265 | 48 | 0,891 | 116 | 0,006 | 2011/2012 M |
| 91 | Txina | 0,719 | .. | .. | .. | 0,202 | 37 | 0,939 | 88 | 0,026[h] | 2009 N |
| 91 | Saint Vincent eta Grenadinak | 0,719 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 93 | Aljeria | 0,717 | .. | .. | .. | 0,425 | 81 | 0,843 | 129 | .. | .. |
| 93 | Dominika | 0,717 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 95 | Albania | 0,716 | 0,620 | 11 | 13,4 | 0,245 | 44 | 0,957 | 72 | 0,005 | 2008/2009 D |
| 96 | Jamaika | 0,715 | 0,579 | 1 | 18,6 | 0,457 | 88 | 0,989 | 17 | .. | .. |
| 97 | Santa Luzia | 0,714 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 98 | Kolonbia | 0,711 | 0,521 | –10 | 25,7 | 0,460 | 92 | 0,972 | 46 | 0,032 | 2010 D |
| 98 | Ekuador | 0,711 | 0,549 | –3 | 22,4 | 0,429 | 82 | .. | .. | .. | .. |
| 100 | Surinam | 0,705 | 0,534 | –6 | 23,5 | 0,463 | 95 | 0,974 | 41 | 0,033[f] | 2010 M |
| 100 | Tonga | 0,705 | .. | .. | .. | 0,458 | 90 | 0,966 | 54 | .. | .. |
| 102 | Dominikar Errepublika | 0,700 | 0,535 | –4 | 23,4 | 0,505 | 105 | .. | .. | 0,026 | 2007 D |
| **GIZA GARAPEN ERTAINA** | | | | | | | | | | | |
| 103 | Maldivak | 0,698 | 0,521 | –7 | 24,2 | 0,283 | 49 | 0,936 | 90 | 0,008 | 2009 D |
| 103 | Mongolia | 0,698 | 0,618 | 16 | 11,4 | 0,320 | 54 | 1,021 | 32 | 0,077 | 2005 M |
| 103 | Turkmenistan | 0,698 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 106 | Samoa | 0,694 | .. | .. | .. | 0,517 | 111 | 0,948 | 81 | .. | .. |
| 107 | Palestinako Estatua | 0,686 | 0,606 | 13 | 11,7 | .. | .. | 0,974 | 41 | 0,007 | 2006/2007 N |
| 108 | Indonesia | 0,684 | 0,553 | 5 | 19,1 | 0,500 | 103 | 0,923 | 98 | 0,024[g] | 2012 D |
| 109 | Botswana | 0,683 | 0,422 | –21 | 36,5 | 0,486 | 100 | 0,964 | 58 | .. | .. |
| 110 | Egipto | 0,682 | 0,518 | –5 | 22,8 | 0,580 | 130 | 0,855 | 125 | 0,036[i] | 2008 D |
| 111 | Paraguai | 0,676 | 0,513 | –5 | 23,7 | 0,457 | 88 | 0,966 | 54 | .. | .. |
| 112 | Gabon | 0,674 | 0,512 | –5 | 24,0 | 0,508 | 108 | .. | .. | 0,073 | 2012 D |
| 113 | Boliviako Estatu Plurinazionala | 0,667 | 0,470 | –10 | 29,4 | 0,472 | 97 | 0,931 | 93 | 0,097 | 2008 D |
| 114 | Moldaviako Errepublika | 0,663 | 0,582 | 16 | 12,0 | 0,302 | 51 | 0,990 | 14 | 0,005 | 2005 D |
| 115 | El Salvador | 0,662 | 0,485 | –7 | 26,2 | 0,441 | 85 | 0,965 | 56 | .. | .. |
| 116 | Uzbekistan | 0,661 | 0,556 | 14 | 15,3 | .. | .. | 0,945 | 82 | 0,013 | 2006 M |
| 117 | Filipinak | 0,660 | 0,540 | 10 | 18,0 | 0,406 | 78 | 0,989 | 17 | 0,038[g,j] | 2008 D |

| | | Giza Garapenaren Indizea | Berdintasun-ezaren arabera Doitutako GGI | | Giza berdintasun-ezaren koefizientea | Generoaren alorreko Berdintasun-ezaren Indizea | | Genero Garapenaren Indizea | | Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Balioa | Balioa | GGIren sailkapenarekiko aldea | | Balioa | Sailkapena | Balioa | Sailkapena | | |
| GGIren sailkapena | | 2013 | 2013 | 2013[a] | 2013 | 2013 | 2013 | 2013 | 2013[b] | Balioa[c] | Urtea eta inkesta[d] |
| 118 | Hegoafrika | 0,658 | .. | .. | .. | 0,461 | 94 | .. | .. | 0,041 | 2012 N |
| 118 | Siriako Arabiar Errepublika | 0,658 | 0,518 | 4 | 20,8 | 0,556 | 125 | 0,851 | 127 | 0,024 | 2006 M |
| 120 | Irak | 0,642 | 0,505 | 0 | 21,2 | 0,512 | 120 | 0,802 | 137 | 0,052 | 2011 M |
| 121 | Guyana | 0,638 | 0,522 | 10 | 18,0 | 0,524 | 113 | 0,985 | 25 | 0,031 | 2009 D |
| 121 | Vietnam | 0,638 | 0,543 | 15 | 14,9 | 0,322 | 58 | .. | .. | 0,026 | 2010/2011 M |
| 123 | Cabo Verde | 0,636 | 0,511 | 4 | 19,4 | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 124 | Mikronesiako Estatu Federatuak | 0,630 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 125 | Guatemala | 0,628 | 0,422 | –8 | 32,0 | 0,523 | 112 | 0,910 | 104 | .. | .. |
| 125 | Kirgizistan | 0,628 | 0,519 | 10 | 16,9 | 0,348 | 64 | 0,976 | 39 | 0,013 | 2005/2006 M |
| 127 | Namibia | 0,624 | 0,352 | –22 | 39,3 | 0,450 | 87 | 0,978 | 36 | 0,200 | 2006/2007 D |
| 128 | Ekialdeko Timor | 0,620 | 0,430 | –3 | 29,4 | .. | .. | 0,875 | 122 | 0,322 | 2009/2010 D |
| 129 | Honduras | 0,617 | 0,418 | –6 | 31,1 | 0,482 | 99 | 0,929 | 95 | 0,098[k] | 2011/2012 D |
| 129 | Moroko | 0,617 | 0,433 | 0 | 28,5 | 0,460 | 92 | 0,828 | 132 | .. | .. |
| 131 | Vanuatu | 0,616 | .. | .. | .. | .. | .. | 0,900 | 110 | 0,135 | 2007 M |
| 132 | Nikaragua | 0,614 | 0,452 | 4 | 25,8 | 0,458 | 90 | 0,912 | 102 | 0,088 | 2011/2012 N |
| 133 | Kiribati | 0,607 | 0,416 | –4 | 30,1 | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 133 | Tajikistan | 0,607 | 0,491 | 9 | 18,8 | 0,383 | 75 | 0,952 | 77 | 0,031 | 2012 D |
| 135 | India | 0,586 | 0,418 | 0 | 27,7 | 0,563 | 127 | 0,828 | 132 | 0,282 | 2005/2006 D |
| 136 | Bhutan | 0,584 | 0,465 | 9 | 20,2 | 0,495 | 102 | .. | .. | 0,128 | 2010 M |
| 136 | Kanbodia | 0,584 | 0,440 | 7 | 24,6 | 0,505 | 105 | 0,909 | 105 | 0,211 | 2010 D |
| 138 | Ghana | 0,573 | 0,394 | –1 | 31,2 | 0,549 | 123 | 0,884 | 118 | 0,144 | 2011 M |
| 139 | Laosko Herri Errepublika Demokratikoa | 0,569 | 0,430 | 8 | 24,1 | 0,534 | 118 | 0,897 | 112 | 0,186 | 2011/2012 M |
| 140 | Kongo | 0,564 | 0,391 | 0 | 30,6 | 0,617 | 135 | 0,928 | 96 | 0,192 | 2011/2012 D |
| 141 | Zambia | 0,561 | 0,365 | –4 | 34,5 | 0,617 | 135 | 0,913 | 101 | 0,318 | 2007 D |
| 142 | Bangladesh | 0,558 | 0,396 | 4 | 28,7 | 0,529 | 115 | 0,908 | 107 | 0,237 | 2011 D |
| 142 | Sao Tome eta Principe | 0,558 | 0,384 | 0 | 30,4 | .. | .. | 0,894 | 115 | 0,217 | 2008/2009 D |
| 144 | Ekuatore Ginea | 0,556 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| **GIZA GARAPEN APALA** | | | | | | | | | | | |
| 145 | Nepal | 0,540 | 0,384 | 3 | 27,8 | 0,479 | 98 | 0,912 | 102 | 0,197 | 2011 D |
| 146 | Pakistan | 0,537 | 0,375 | 2 | 28,7 | 0,563 | 127 | 0,750 | 145 | 0,237 | 2012/2013 D |
| 147 | Kenya | 0,535 | 0,360 | 0 | 32,7 | 0,548 | 122 | 0,908 | 107 | 0,226 | 2008/2009 D |
| 148 | Swazilandia | 0,530 | 0,354 | –2 | 33,1 | 0,529 | 115 | 0,877 | 121 | 0,113 | 2010 M |
| 149 | Angola | 0,526 | 0,295 | –17 | 43,6 | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 150 | Myanmar | 0,524 | .. | .. | .. | 0,430 | 83 | .. | .. | .. | .. |
| 151 | Ruanda | 0,506 | 0,338 | –4 | 33,1 | 0,410 | 79 | 0,950 | 80 | 0,352 | 2010 D |
| 152 | Kamerun | 0,504 | 0,339 | –2 | 32,4 | 0,622 | 138 | 0,872 | 123 | 0,260 | 2011 D |
| 152 | Nigeria | 0,504 | 0,300 | –14 | 40,2 | .. | .. | 0,839 | 131 | 0,239 | 2011 M |
| 154 | Yemen | 0,500 | 0,336 | –2 | 31,7 | 0,733 | 152 | 0,738 | 146 | 0,191[g] | 2006 M |
| 155 | Madagaskar | 0,498 | 0,346 | 2 | 30,3 | .. | .. | 0,917 | 99 | 0,420 | 2008/2009 D |
| 156 | Zimbabwe | 0,492 | 0,358 | 7 | 26,8 | 0,516 | 110 | 0,909 | 105 | 0,181 | 2010/2011 D |
| 157 | Papua Ginea Berria | 0,491 | .. | .. | .. | 0,617 | 135 | .. | .. | .. | .. |
| 157 | Salomon Uharteak | 0,491 | 0,374 | 11 | 23,8 | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 159 | Komoreak | 0,488 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 159 | Tanzaniako Errepublika Batua | 0,488 | 0,356 | 8 | 26,9 | 0,553 | 124 | 0,916 | 100 | 0,335 | 2010 D |
| 161 | Mauritania | 0,487 | 0,315 | –2 | 34,6 | 0,644 | 142 | 0,801 | 138 | 0,362 | 2007 M |
| 162 | Lesotho | 0,486 | 0,313 | –2 | 34,9 | 0,557 | 126 | 0,973 | 43 | 0,227 | 2009 D |
| 163 | Senegal | 0,485 | 0,326 | 3 | 32,3 | 0,537 | 119 | 0,864 | 124 | 0,390 | 2010/2011 D |
| 164 | Uganda | 0,484 | 0,335 | 5 | 30,8 | 0,529 | 115 | 0,896 | 114 | 0,359 | 2011 D |
| 165 | Benin | 0,476 | 0,311 | 0 | 34,2 | 0,614 | 134 | 0,822 | 134 | 0,401 | 2006 D |
| 166 | Sudan | 0,473 | .. | .. | .. | 0,628 | 140 | .. | .. | .. | .. |
| 166 | Togo | 0,473 | 0,317 | 4 | 32,6 | 0,579 | 129 | 0,803 | 136 | 0,260 | 2010 M |
| 168 | Haiti | 0,471 | 0,285 | –3 | 38,9 | 0,599 | 132 | .. | .. | 0,242 | 2012 D |
| 169 | Afganistan | 0,468 | 0,321 | 7 | 30,0 | 0,705 | 150 | 0,602 | 148 | 0,293[g] | 2010/2011 M |
| 170 | Djibuti | 0,467 | 0,306 | 2 | 33,7 | .. | .. | .. | .. | 0,127 | 2006 M |
| 171 | Boli Kosta | 0,452 | 0,279 | –2 | 37,9 | 0,645 | 143 | .. | .. | 0,307 | 2011/2012 D |
| 172 | Gambia | 0,441 | .. | .. | .. | 0,624 | 139 | .. | .. | 0,329 | 2005/2006 M |
| 173 | Etiopia | 0,435 | 0,307 | 5 | 28,0 | 0,547 | 121 | 0,853 | 126 | 0,537 | 2011 D |
| 174 | Malawi | 0,414 | 0,282 | 1 | 31,6 | 0,591 | 131 | 0,891 | 116 | 0,332 | 2010 D |
| 175 | Liberia | 0,412 | 0,273 | –1 | 32,8 | 0,655 | 145 | 0,786 | 140 | 0,459 | 2007 D |
| 176 | Mali | 0,407 | .. | .. | .. | 0,673 | 148 | 0,771 | 143 | 0,533 | 2006 D |

| | Giza Garapenaren Indizea | Berdintasun-ezaren arabera Doitutako GGI | | Giza berdintasun-ezaren koefizientea | Generoaren alorreko Berdintasun-ezaren Indizea | | Genero Garapenaren Indizea | | Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Balioa | Balioa | GGIren sailkapenarekiko aldea | | Balioa | Sailkapena | Balioa | Sailkapena | | |
| GGIren sailkapena | 2013 | 2013 | 2013[a] | 2013 | 2013 | 2013 | 2013 | 2013[b] | Balioa[c] | Urtea eta inkesta[d] |
| 177 Ginea Bissau | 0,396 | 0,239 | –4 | 39,4 | .. | .. | .. | .. | 0,495 | 2006 M |
| 178 Mozambike | 0,393 | 0,277 | 2 | 28,9 | 0,657 | 146 | 0,879 | 120 | 0,390 | 2011 D |
| 179 Ginea | 0,392 | 0,243 | –1 | 37,8 | .. | .. | 0,785 | 141 | 0,548 | 2005 D |
| 180 Burundi | 0,389 | 0,257 | 2 | 32,6 | 0,501 | 104 | 0,904 | 109 | 0,442 | 2010 D |
| 181 Burkina Faso | 0,388 | 0,252 | 2 | 34,6 | 0,607 | 133 | 0,924 | 97 | 0,508 | 2010 D |
| 182 Eritrea | 0,381 | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| 183 Sierra Leona | 0,374 | 0,208 | –3 | 43,6 | 0,643 | 141 | 0,799 | 139 | 0,405 | 2010 M |
| 184 Txad | 0,372 | 0,232 | 1 | 36,8 | 0,707 | 151 | 0,762 | 144 | .. | .. |
| 185 Afrika Erdiko Errepublika | 0,341 | 0,203 | –2 | 39,9 | 0,654 | 144 | 0,776 | 142 | 0,424 | 2010 M |
| 186 Kongoko Errepublika Demokratikoa | 0,338 | 0,211 | 1 | 36,8 | 0,669 | 147 | 0,822 | 134 | 0,399 | 2010 M |
| 187 Niger | 0,337 | 0,228 | 3 | 31,8 | 0,674 | 149 | 0,714 | 147 | 0,584 | 2012 D |
| **BESTE HERRIALDE ETA LURRALDE BATZUK** | | | | | | | | | | |
| Koreako Herri Errepublika Demokratikoa | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| Marshall Uharteak | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| Monako | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| Nauru | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| San Marino | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| Somalia | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | 0,500 | 2006 M |
| Hego Sudan | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| Tuvalu | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. | .. |
| **Giza Garapenaren Indizeko taldeak** | | | | | | | | | | |
| Oso giza garapen handia | 0,890 | 0,780 | — | 12,0 | 0,197 | — | 0,975 | — | — | — |
| Giza garapen handia | 0,735 | 0,590 | — | 19,3 | 0,315 | — | 0,946 | — | — | — |
| Giza garapen ertaina | 0,614 | 0,457 | — | 25,2 | 0,512 | — | 0,875 | — | — | — |
| Giza garapen apala | 0,493 | 0,332 | — | 32,4 | 0,587 | — | 0,834 | — | — | — |
| **Eskualdeak** | | | | | | | | | | |
| Estatu arabiarrak | 0,682 | 0,512 | — | 24,2 | 0,546 | — | 0,866 | — | — | — |
| Ekialdeko Asia eta Pazifikoa | 0,703 | 0,564 | — | 19,5 | 0,331 | — | 0,943 | — | — | — |
| Europa eta Erdialdeko Asia | 0,738 | 0,639 | — | 13,2 | 0,317 | — | 0,938 | — | — | — |
| Latinoamerika eta Karibe | 0,740 | 0,559 | — | 23,9 | 0,416 | — | 0,963 | — | — | — |
| Hego Asia | 0,588 | 0,419 | — | 28,0 | 0,539 | — | 0,830 | — | — | — |
| Saharaz hegoaldeko Afrika | 0,502 | 0,334 | — | 33,5 | 0,578 | — | 0,867 | — | — | — |
| **Gutxien garatutako herrialdeak** | 0,487 | 0,336 | — | 30,9 | 0,570 | — | 0,859 | — | — | — |
| **Garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak** | 0,665 | 0,497 | — | 24,9 | 0,478 | — | .. | — | — | — |
| **Mundua** | **0,702** | **0,541** | **—** | **22,8** | **0,451** | **—** | **0,920** | **—** | **—** | **—** |

### OHARRAK

**a** Berdintasun-ezaren arabera Doitutako GGI kalkulatuta duten herrialdeetan oinarrituta.

**b** GGIn genero-berdintasunarekiko duten desbiderapen absolutuaren arabera sailkatu dira herrialdeak.

**c** Pobrezia Multidimentsionalaren Indize berrikusia egiteko, hiru dimentsiotako —osasuna, hezkuntza eta bizi-maila— gabezia berrikusiak hartu dira kontuan —*5. ohar teknikoan* dago adierazita, http://hdr.undp.org webgunean—. Ezin izan dira herrialde guztietan adierazle guztiak lortu; beraz, zuhurtziaz egin behar dira herrialdeen arteko alderaketak. Datuak falta diren kasuetan, adierazleen pisua %100era moldatu da.

**d** *D* letrak adierazten du datuak demografia- eta osasun-inkestetakoak (DHS) direla; *M* letrak, datuak hainbat adierazle taldekatuko inkestetakoak (MICS) direla; eta *N* letrak, datuak inkesta nazionaletakoak direla.

**e** Herrialdeko hiri-inguruneei soilik egiten die erreferentzia.

**f** Haurren heriotza-tasaren adierazlea falta da.

**g** Elikaduraren adierazleak falta dira.

**h** Herrialdearen zati bati bakarrik egiten dio erreferentzia (bederatzi probintziari). Lur-motaren adierazlea falta da.

**i** Sukaldeko erregaiaren adierazlea falta da.

**j** Eskolara joatearen adierazlea falta da.

**k** Elektrizitatearen adierazlea falta da.

### ITURRIAK

**1. zutabea:** HDROk kalkulatua, honako hauetan oinarrituta: UNDESA (2013a), Barro eta Lee (2013), UNESCOren Estatistika Institutua (2013), Nazio Batuen Estatistika Saila (2014), Munduko Bankua (2014) eta NDF (2014).

**2. zutabea:** HDROk kalkulatua, honako hauetan oinarrituta: 1. zutabeko datuak, eta zer berdintasun-ez dauden bizi-itxaropenaren, eskolatze-urteen, diru-sarreren edo kontsumoaren banaketan —*2. ohar teknikoan* dago adierazita, http://hdr.undp.org webgunean—.

**3. zutabea:** HDROk kalkulatua, honako hauetan oinarrituta: 2. zutabeko datuak, eta Berdintasun-ezaren arabera Doitutako GGI kalkulatuta duten herrialdeen GGIren sailkapen birkalkulatuak.

**4. zutabea:** GGIren hiru dimentsioetan kalkulatutako berdintasun-ezen batez besteko aritmetiko gisa kalkulatua —*2. ohar teknikoan* dago adierazita, http://hdr.undp.org webgunean—.

**5. zutabea:** HDROk kalkulatua, honako hauetan oinarrituta: OME eta beste batzuk (2013), UNDESA (2013a), IPU (2013), Barro eta Lee (2013), UNESCOren Estatistika Institutua (2013) eta LANE (2013a).

**6. zutabea:** 5. zutabeko datuetan oinarrituta kalkulatua.

**7. zutabea:** HDROk kalkulatua, honako hauetan oinarrituta: UNDESA (2013a), Barro eta Lee (2013), Nazio Batuen Estatistika Saila (2014), UNESCOren Estatistika Institutua (2013b), Munduko Bankua (2014) eta LANE (2014).

**8. zutabea:** 7. zutabeko datuetan oinarrituta kalkulatua.

**9. eta 10. zutabeak:** HDROk kalkulatua, honako hauetan oinarrituta: ICF Macroren demografia- eta osasun-inkestak (DHS), UNICEFen hainbat adierazle taldekatuko inkestak (MICS), eta, kasu batzuetan, etxeko zenbait inkesta nazional, DHS edo MICS metodologian oinarrituta.

**Giza garapenari buruzko munduko txostenak.** Nazio Batuetako Garapen Programak (UNDP) 1990etik giza garapenari buruz argitaratzen dituen txostenetan azkena da *Giza Garapenari buruzko Txostena 2014*. Txosten horiek garapenarekin lotutako kontu, joera eta politikei buruzko azterketa independenteak dira, eta oinarri enpirikoa dute.

*Giza Garapenari buruzko Txostena 2014*rekin lotutako baliabideak on line eskura daitezke hdr.undp.org helbidean. Webgune horretan, honako hauek daude: txostenen argitalpen osoak eta laburpenak, 20 hizkuntzatan baino gehiagotan; 2014ko Txostenerako agindutako giza garapenari buruzko ikerlanak; herrialdeko giza garapenaren adierazleen datu-baseak eta mapa interaktiboak; Txosteneko giza garapenaren indizeetarako erabilitako iturrien eta metodologien azalpen zehatzak; herrialdeen profilak; bai eta beste material batzuk ere. Aurrez giza garapenari buruz egin diren munduko, eskualdeko eta herrialdeko txostenak ere eskuragarri daude hdr.undp.org webgunean.

**Giza garapenari buruzko eskualdeko txostenak.** Azken bi hamarkadetan, Nazio Batuetako Garapen Programaren eskualdeko bulegoen laguntzarekin, giza garapenari buruzko eskualdeko txostenak egin dira garapen-bidean dauden eremu nagusi guztietan. Azterketa probokatzaileen eta politika-gomendio argien bidez, funtsezko gaiak landu dituzte giza garapenari buruzko eskualdeko txosten horiek; adibidez, ahalduntze politikoa estatu arabiarretan, elikagai-segurtasuna Afrikan, klima-aldaketa Asian, etnia-gutxiengoekiko tratua Erdialdeko Europan, eta berdintasun-ezaren eta herritarren segurtasunaren erronkak Latinoamerikan eta Kariben.

**Giza garapenari buruzko herrialdeko txostenak.** Lehenengo giza garapenari buruzko herrialdeko txostena 1992. urtean argitaratu zen, eta, geroztik, Nazio Batuetako Garapen Programaren laguntzaz, tokiko argitalpen-taldeek herrialdeko 700 bat txosten egin dituzte 140 herrialdetan. Dokumentu horiek giza garapenaren kontzeptua sartu dute herrialdeetako politika-eztabaidetan, tokian tokiko kontsulta-prozesuen eta ikerkuntzen bidez. Giza garapenari buruzko herrialdeko txostenek garapenarekin lotutako funtsezko zenbait kontu landu dituzte: klima-aldaketa, gazte-enplegua, generoaren eta etniaren araberako berdintasun-ezak...

## Giza garapenari buruzko txostenak. 1990–2014

| | |
|---|---|
| 1990 | Giza garapenaren kontzeptua eta neurtzeko modua |
| 1991 | Giza garapenaren finantziazioa |
| 1992 | Giza garapenaren dimentsio globalak |
| 1993 | Jendearen parte-hartzea |
| 1994 | Giza segurtasunaren dimentsio berriak |
| 1995 | Generoa eta giza garapena |
| 1996 | Hazkunde ekonomikoa eta giza garapena |
| 1997 | Giza garapena pobreziarekin amaitzeko |
| 1998 | Giza garapenaren aldeko kontsumoa |
| 1999 | Giza aurpegia duen globalizazioa |
| 2000 | Giza eskubideak eta giza garapena |
| 2001 | Teknologia berriak giza garapenaren alde |
| 2002 | Demokrazia sendotzen mundu zatitu batean |
| 2003 | Milurtekoko Garapen Helburuak: giza pobreziarekin amaitzeko nazioen arteko ituna |
| 2004 | Kultur askatasuna egungo mundu anitzean |
| 2005 | Nazioarteko lankidetza bidegurutzean: laguntza, merkataritza eta segurtasuna desberdintasun handiko munduan |
| 2006 | Eskasia baino gehiago: boterea, pobrezia eta munduko ur-krisia |
| 2007/2008 | Klima-aldaketari aurre egiten: gizakion arteko elkartasuna mundu zatitu honetan |
| 2009 | Oztopoak gainorituz: giza mugikortasuna eta garapena |
| 2010 | Nazioen benetako aberastasuna: giza garapeneko bideak |
| 2011 | Iraunkortasuna eta ekitatea: etorkizun hobea guztiontzat |
| 2013 | Hegoaldearen goraldia: giza garapena, aniztasun handiko mundu batean |
| 2014 | Giza aurrerapenak iraunarazi: kalteberatasunak murriztu eta erresilientzia eraikitzea |

United Nations Development Programme
One United Nations Plaza
New York, NY 10017

www.undp.org

Urtero, 200 milioi pertsonak baino gehiagok jasaten dituzte hondamendi naturalen eraginak: gehienak garapen-bidean dauden herrialdeetan bizi dira. Gatazken eta jazarpenen ondorioz bizilekua utzi behar izan dutenen kopurua —45 milioi, 2012. urtearen amaieran— azken 18 urteetako handiena da. Krisi ekonomikoek arriskuan jarri dituzte hobekuntza sozialak, baita gizarte industrializatu aurreratuetan ere. Globalizazioak, gainera, onura asko ekarri dituen arren, kalteberatasunak ere sortu ditu; izan ere, toki jakin batean gertatzen diren ezbeharrak berehala zabaltzen dira mundu osora, eta guztioi eragiten digute.

Txostenak azpimarratzen du beharrezkoa dela pertsonen aukeraketak sustatzea eta giza garapenean egindako lorpenak babestea. Oso garrantzitsua da bizirik dirauten kalteberatasunak identifikatu eta haiei aurre egitea, erresilientzia eraikiz eta jendeak ezbehar ekonomikoei, hondamendi naturalei edo bestelako ezustekoei aurre egiteko duen gaitasuna areagotuz.

Nahiz eta ia denok senti gaitezkeen kalteberak bizitzako une batzuetan, pertsona eta talde batzuk beste batzuk baino egoera okerragoan daude. Ia 1,5 mila milioi pertsona pobrezia multidimentsionalean bizi dira, eta gabeziak dituzte osasunean, hezkuntzan eta bizi-mailan. Eta 800 milioi pertsona inguruk ezbeharren bat gertatuz gero berriro ere pobreziara itzultzeko arriskua dute. Pertsona kalteberenak eta kalteberatasunaren eragile nagusiak ditu ardatz Txostenak. Kausa estrukturalak aztertzen ditu —gizarte-marjinalizazioa, gizarte-maila eta zerbitzu publiko nahikoa ez izatea— eta bizi-zikloko zenbait unetan bizi ditugun kalteberatasunak lantzen ditu.

Arriskuak eta ezbeharrak beti egongo dira, baina neurriak har daitezke gertaera horiek giza garapenean duten eragina murrizteko. Ezbehar gehienak gainditu daitezke, politika egokiak erabiltzen badira eta gizarte-kohesioa handitzen bada. Kalteberatasunak goiz hautemateko mekanismoek eta garai egokian inbertsio txiki batzuk egiteak kalteberatasuna murriztu eta erresilientzia eraiki dezakete. Beraz, giza garapena osotasunean neurtzeko, kalteberatasuna eta erresilientzia ere aztertu behar dira. Beharrezkoa da talde kalteberak identifikatzea, berdintasun-eza murriztea eta kalteberatasun estrukturalak amaitzea, giza aurrerapen iraunkor eta sendoa eraikitzeko belaunaldiz belaunaldi.

*"Kalteberatasunei aurre egiten badiegu, pertsona guztiengana iritsiko dira garapenaren onurak, eta giza garapena gero eta zuzenagoa eta iraunkorragoa izango da."*
—Helen Clark, UNDPko administraria

*"Kalteberatasunak hainbat kausa eta ondorio ditu. Kalteberatasuna murriztea funtsezkoa da giza garapenean aurrera egiteko. Baina benetan kalteberatasuna murriztu nahi badugu, ikuspegi sistemiko zabal bat erabili behar dugu gaia lantzean"*
—Joseph Stiglitz, Nobel saridunа; 4. kapitulua

*"Beharrezkoa da pertsonei askatasunez jardutea eragozten dieten oztopoak kentzea. Helburua da behartsuei eta baztertuei beren eskubideak erabiltzeko, beren kezkak modu irekian adierazteko, entzunak izateko eta beren etorkizuna eraikitzen duten eragile aktiboak izateko gaitasuna ematea."*
—Khalid Malik, Txostenaren egile nagusia; 1. kapitulua

*"Alderdi askotan aurrerapen handiak egin badira ere, oraindik ere badira pertsona eta talde kalteberak —batez ere desgaituak—. Nazio Batuen kalkuluen arabera, mila milioi pertsona baino gehiagok desgaitasunen bat dute, eta munduko pobreenen artean duten proportzioa oso handia da."*
—Stephen Hawking, zientzialaria; 1. kapitulua